Por motivos organizativos y manteniendo la actuación que se ha llevado a cabo en la aprobación de la relación de puestos de trabajo para este año con respecto a los mencionados puestos de agentes de la policía local, el Oficial Jefe del servicio de la Policía Local en concordancia con la intención que viene manteniendo este Ayuntamiento con respecto al servicio de la grúa municipal, consideró indispensable que los puestos de agentes que vayan quedando vacantes, tengan como requisito para acceder a los mismos, además del A2 y B, el mencionado carnet de conducir C1+E, persiguiendo que en un futuro no lejano queden refundidos los dos puestos de agentes de la policía local existentes en uno único y con la finalidad de que el servicio de grúa municipal sea desempeñado por agentes de la Policía Local.

Bestalde, Udaltzaingoko ofizial buruak 2017ko ekainaren 14an egin zuen txosten ofizialean egungo plantillaren aldaketa eskatu zuen, udaltzaingoko 11 agente lanpostu berri sortzeko, udalak garabi eta TAOko zerbitzuak udal langileek ematea erabaki

Por otra parte, mediante informe del Oficial-Jefe de la Policía Local de fecha 14 de junio del presente año 2017, se ha solicitado la modificación de la plantilla de personal vigente, para crear 11 nuevas plazas de agentes de la policía local, tras la decisión municipal



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ondoren.

Trafikoaren mugikortasunerako eta aparkatzeko zerbitzuaren kudeaketa eraginkorragoa izatea da udalak hartutako erabakiaren arrazoia, hain zuzen ere, udaltzaingoari dagokionez, ondoko hobekuntzak azaltzen dira txostenean:

- gaueko txandan, garabiaren gidaria agente bat izanik, udaltzain kopuruan bat gehiago egongo da.

- udaltzainei dagozkien funtzioak betetzeko agente gehiago egongo dira.

- zerbitzuaren malgutasuna handiagoa izango da, beraz, ekitaldi zehatzetan parte hartzeko agente kopurua areagotuko da ( herriko jaiak...).

Proposamenean adierazita bezala, langile kopurua areagotzea bat dator arrazionaltasun, ekonomia eta eraginkortasun printzipioekin, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 90.1 artikuluak aipatutakoaren arabera, gainera, lanpostuak sortzea berezkoa du autoantolaketa egiteko ahalmenak, lege horretako 4.1a artikuluari eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 10.1 artikuluari jarraiki, betiere, izaera orokorra duten langileen arloko gastuak gainditu gabe.

Kontuan hartu da langile kopurua handitu daitekeela, izan ere, gastu handiago hori orekatu daiteke handitu ezin diren bestelako gastu arruntak murriztuz, apirileko 18ko 781/1986 Errege legegintza dekretuaren 2. atalean xedatutakoa betez.

de prestar el servicio de Grúa y OTA con personal propio.

La razón que motiva dicha decisión municipal se encuentra en que la gestión del servicio de movilidad del tráfico rodado y estacionamiento en este municipio va a ser mas eficiente, concretamente, el mencionado informe presenta las siguientes mejoras respecto al servicio de la policía local:

- en el turno de noche, al ser el conductor de la grúa un agente, el número de efectivos se incrementa en una persona más.

- se va a disponer de más personal para desempeñar las funciones de agente de la policía local.

- la flexibilidad del servicio es mayor lo que repercute en que el número de efectivos disponible para eventos concretos es mayor (fiestas patronales...)

Considerando que el incremento de la plantilla de personal propuesto, responde a los principios de racionalidad, economía y eficiencia, enunciados en el artículo 90.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril y que la creación de plazas es consustancial con la potestad de autoorganización a que se refiere el artículo 4.1a) de la misma ley, así como en el artículo 10.1 de la LILE, sin que se puedan rebasar los límites de gastos de personal que se fijen con carácter general.

Considerando que la plantilla puede ser ampliada por cuanto el incremento del gasto queda compensado mediante la reducción de otros capítulos de gastos corrientes no ampliables, de conformidad con el supuesto señalado en el apartado 2 del artículo 126 del RDL 781/1986, de 18 de abril.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udaltzaingoko ofizial buruaren txostenak (2017-06-13koa eta 2017-06-14koa).

Visto los informes del Oficial Jefe de la Policía Local de fechas 13 y 14-06-2017.

Kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Visto el informe de la Interventora.

Giza Baliabideetako teknikariak txostena egin du 2017ko irailaren 9 datarekin.

Visto el informe de la técnico de Recursos Humanos de fecha 9 de octubre de 2017

2017ko urriaren 25ean, Lehendakaritzako ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Visto que en fecha 25 de octubre de 2017, a propuesta de la Delegada de Presidencia, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 9 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu y Errenteria IrabaziZ) y 9 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV)

**E R A B A K I A**

**A C U E R D A**

LEHENENGO. Udal honetako lanpostuen zerrenda aldatzea ondorengo eran:

- Hamaika dotazio gehitzea Udaltzaingoko agentearen 7108 kodeko postuan; guztira 28 dotazio izango dira. Hizkuntz eskakizunaren derrigortasun-data erabakia hartzen duen osoko bilkurarena izango da.
- Hutsik geratzen diren neurrian udaltzaingoko 7107 kodedun agente lanpostuen dotazioak ezabatzea, eta dotazio horiek handitzea 7108 kodea duen postuan, ezabatzen diren egunaren biharamunetik aurrera ondorioak izan daitezen, udalbatzaren erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

PRIMERO.- Modificar la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento en los siguientes términos:

- Incrementar en once dotaciones el puesto de agente de la policía local de código 7108 de la relación de puestos de trabajo, quedando el total de dotaciones en 28. La fecha de preceptividad del perfil lingüístico será la de la sesión plenaria en la que se adopte el acuerdo.
- Suprimir dotaciones del puesto de agente de la policía local del código 7107 conforme vayan quedando vacantes e incrementar esas dotaciones en el puesto con el código 7108 con efectos del día siguiente a su supresión, todo ello sin necesidad de un nuevo acuerdo plenario.

BIGARREN.- Udala honetako langile-plantila aldatzea ondorengo eran:

SEGUNDO.- Modificar la plantilla de personal de este Ayuntamiento en los siguientes términos:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

• Udaltzaingoko hamaika agente plaza sortzea, funtzionarioentzat gordetakoak, C2 sailkapen taldean sartuak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak eta Udaltzaingoa eta laguntzaileak klasekoak.

• Crear once plazas de agente de la Policía Local, reservadas a personal funcionario, encuadradas en el grupo de clasificación C2 y pertenecientes a la escala de Administración Especial, subescala de Servicios Especiales, clase Policía Local y sus auxiliares.

HIRUGARREN.- Langile-plantilan egindako aldaketa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 15 egun uztea erreklamazio eta iradokizunak egiteko. Epe horretan inork ez balu erreklamaziorik egingo, egindako aldaketa behin-betiko egintzat joko litzateke.

TERCERO.- Publicar la modificación de la plantilla de personal en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 15 días hábiles, durante los cuales se admitirán reclamaciones y sugerencias. Transcurrido el mismo sin que se haya producido reclamación alguna, la modificación se entenderá automáticamente elevada a definitiva.

LAUGARREN.- Langile-zerrendan egindako aldaketak argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Aldaketak eragina izango du aurreko puntuan jasota dagoen langile-plantilaren aldaketa behin-betikotasunez onartuta jotzen denean.

CUARTO.- Publicar la modificación de la relación de puestos de trabajo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Esta modificación tendrá efectos desde el momento en que se considere definitivamente aprobada la modificación de plantilla que se recoge en el punto anterior.

**7. Proposamena: 2018. urterako Ordenantza Fiskalen hasierako onespena.**

**7. Propuesta: aprobación inicial de las Ordenanzas Fiscales 2018**

Azken urteotan tasak eta zergak bere horretan izoztu ondoren, ordenantza fiskal hauek aldatzeko proposamena egiten dugu udal diru-sarreretan oreka eta egonkortasun handiagoa izan dadin. Ekonomia sustatzeko zerga neurriak mantendu dira, baita azkeneko urteotan inplementatutako hobari eta salbuespen sorta ere, hori guztia ekonomia berreskuratzea helburu hartuta.

Tras la congelación de tasas e impuestos de estos últimos años, la propuesta de modificación de las presentes ordenanzas fiscales se realiza con el fin de que haya un mayor equilibrio y estabilidad de los ingresos municipales. Se mantienen las medidas fiscales para impulsar la economía y el paquete de bonificaciones y exenciones implantadas en los últimos años con el objeto de contribuir a la recuperación económica.

Era berean, proposatzen da Diru-bilketako Ordenantza aldatzea, errezibo batzuk zatika

Así mismo, se plantea una modificación de la Ordenanza de Recaudación, estableciendo un



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ordaintzeko sistema berezia ezartzea eta errezibuen diru kopurua dela-eta zergadunari sor dakiokeen eragin ekonomikoa murriztea. Zehazki, errezibo hauetan: Ondare Higiezinen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilagailuen gaineko Zerga eta Hondakinak jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa.

sistema de pago fraccionado especial para algunos recibos y minimizar el impacto económico que puede suponer al contribuyente su pago por su cuantía. En concreto, los recibos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica y la Tasa por Recogida de Residuos.

Planteatzen diren aldaketa hauek dira:

Las modificaciones que se plantean son las siguientes:

1.- Oro har %2ko igoera zerga, tasa eta prezio publiko guztietan, eguneratzea egokitu ezean, salbuespen hauekin:

1.- Un incremento general del 2% en todos los impuestos, tasas y precios públicos, salvo que no proceda su actualización, con las siguientes excepciones:

a.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga

a.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Zerga tipoak bere horretan uztea, hiri ondasunetarako 2017an egindako murrizketa mantenduz.

Congelar los tipos impositivos manteniendo la reducción del tipo realizado en el 2017 para los bienes de naturaleza urbana.

b.- Egoliarrentzako TAOko tarifak murriztea %20an

b.-. Reducción de las tarifas de OTA a los residentes en un 20%

c.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzua eta etxeko arreta zerbitzu osagarriako tasak izoztu.

c.- Congelar la tasas por prestación del servicio de ayuda a domicilio y servicio de atención domiciliaria complementaria.

2.- Trakzio Mekanikoko Ibilagailuen gaineko Zerga

2.- Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Ibilgailu elektriko edota hibridoen kuotan hobari portzentajea handitzea, %25etik %50era pasatuta.

Incremento del porcentaje de bonificación en la cuota a los vehículos eléctricos y/o híbridos. Pasando del 25% al 50%.

3.- Diru-bilketako Ordenantza aldatzea. Honen bidez zatika ordaintzearen gaineko egungo araudia egokitu nahi zaio herriko errealitate sozial eta ekonomikoari.

3.- Modificación en la Ordenanza de Recaudación, consistente en la adaptación de la normativa actual en materia de fraccionamientos a la realidad social y económica del municipio.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

4.- Araudiaren egokitzapen teknikoak.

Txosten teknikoak eta 2017ko urriaren 17ko Udal Kontuhartzailearen txostena ikusirik.

2017ko urriaren 25ean, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Hauek mintzatu dira:

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du datu ekonomikoei begiratuta argi dagoela gure eskualdeko eta gure udalerriko herritarrek bereziki pairatu dutela eta pairatzen jarraitzen dutela krisi ekonomikoa. Egoera honek azken urteotan errenteriarren eros-ahalmenaren galera ekarri du eta soldatak KPIa igoko den neurri berdinean igoko ez direnez, ahalmen hori are gehiago jaitsiko da. Beren iritziz, gainera, kontuan izan behar dira ordenantza fiskalei lotutako bi gertaera: batetik, azken urteetan hondakin bilketaren gaineko zergak jasan duen igoera garrantzitsua, lehengo urtean bertan % 21eko igoera izan zuen; eta, bestetik, OHZren joan den urteko igoera —tipoa jaitsi zen baina katastroaren eguneraketaren ondorioz azkenean herritarrek ordaindu beharrekoa igo egin zen— eta Udalak kontzeptu horren bidez diru gehiago bildu zuen. Udal gobernuak orokorrean KPIa igotzea aurreikusten den neurri berean tasak eta zergak igotzea proposatzen du, hau da, % 2ko igoera, salbuespen batzuekin: izozte batzuekin eta jaitsiera batzuekin. EAJren iritziz, Errenteriako Udalaren egoera ekonomikoa kontutan hartuta, tasak eta zergak izoztea posiblea da eta ez luke aurrekontuetan gaindiezina izango litzatekeen afekziorik izango. Errenteriako Udalak baditu beste

4.- Adaptaciones técnicas de la normativa.

Vistos los informes técnicos y el informe de la Interventora municipal, Sra. Sánchez, de fecha 17 de octubre de 2017.

Visto que en fecha 25 de octubre de 2017, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Se producen las siguientes intervenciones

*Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que si nos fijamos en los datos económicos está claro que han sido nuestra comarca y nuestra ciudad las que especialmente han sufrido y siguen sufriendo la crisis económica. Esa situación en los últimos años ha causado la pérdida de poder adquisitivo, y dado que los sueldos no subirán en la misma medida que el IPC, seguirán perdiendo poder adquisitivo. En su opinión, además, hay que tener en cuenta dos hechos relacionados con las ordenanzas fiscales: por un lado, en los últimos años la importante subida que ha sufrido el impuesto sobre la recogida de residuos, ya que sólo el último año tuvo una subida del 21%; y, por otro, la subida del año pasado del IBI —se bajó el tipo, pero a consecuencia de la actualización del catastro aumentó lo que debían abonar los y las ciudadanas— y el Ayuntamiento recaudó más dinero por el mismo concepto. El Gbierno Municipal propone una subida de tasas e impuestos correspondiente a la previsión de subida del IPC, es decir, del 2%, pero con unas salvedades: con algunas congelaciones y ciertas bajadas. En opinión del PNV, teniendo en cuenta la situación económica del Ayuntamiento de Errenteria, la congelación de tasas e impuestos es posible y no tendría una afección insalvable en los presupuestos.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

diru-iturri batzuk eta esfortzu hau egiteak ez lioke aparteko arazorik sortuko. Horiek horrela, gauzak bere onera itzuli arte eta herritarrek beren eros-ahalmena berreskuratu bitarte, beren ustez udal-tasak ez igotzeko ahalegina egin beharko luke Errenteriako Udalak. Kontutan izan behar da familia ugari hilabete amaierara ozta-ozta iristen direla eta edozein igoera guri txikia iruditzen bazaigu ere, beraien bizitzan eragin handia izaten dela. Bestalde, Errenteriako herritarrak birziklapenarekin sentiberatzeko kanpainak jarraitzen du, eta kanpaina horri hobari bidez bultzada bat ematea beharrezkoa iruditzen zaie. Horregatik, hondakin-bilketaren gaineko zergari dagokion hobarietan bio-hondakina jasotzeko programan aktiboki parte hartzen dutenentzako dagoen hobaria auzo-konposta egiten dutenen hobariekin parekatzea proposatzen dute; hau da, % 25etik % 30era pasatzea. Neurri horrek helburu bikoitza izango luke: alde batetik, birziklapena sustatzea eta bestetik herritarrengan presio fiskala arintzea. Kontu-hartzailearen txostenak dioen bezala, zuzenketa hauek zerga eta tasen aldaketa nabarmenik suposatzen ez dutenez, oro har, zuzenketak onartzea edo ez onartzea erabakitzea erabaki politikoa da. Eragina dute noski Udalaren diru-sarreretan eta, ondorioz, udal-aurrekontuetan. Ulertzen dute udal-zerbitzuen estaldura-maila hobetzea garrantzitsua dela, baina uste dute testuinguru sozio-ekonomikoari erreparatuta, lehentasunak ezarri behar direla eta herritarrekiko esfortzua egitea onuragarria litzatekeela. Horregatik eusten diote beren proposamenari eta eskatzen diote udalbatzari zuzenketa hauek aintzat har ditzala eta hauen aldeko bozka eman dezala, horrela jasoa gera dadin 2018ko ordenantza fiskaletan, errenteriarren onerako delako, beti ere. Izan ere, ordenantza fiskalak onartzen dituztenean, udalaren ekonomiari begiratu behar zaio, noski, baina, era berean, herritarren ekonomiari begiratzea ere beren erantzukizuna da.

El Ayuntamiento de Errenteria dispone de otras fuentes de dinero, y este esfuerzo no le supondría mayor problema. Así las cosas, hasta que las cosas vuelvan a su lugar y la ciudadanía recupere su poder adquisitivo, a su parecer el Ayuntamiento de Errenteria debería hacer el esfuerzo de no subir las tasas municipales. Hay que tener en cuenta que muchas familias a duras penas llegan a final de mes y que cualquier subida, por muy pequeña que nos parezca, tiene gran afección en sus vidas. Por otro lado, la campaña para sensibilizar la ciudadanía en relación al reciclaje continúa, y les parece necesario impulsar dicha campaña mediante una bonificación. Por ello, proponen asimilar la bonificación de las personas que toman parte activamente en el programa de recogida de bioresiduo con la bonificación establecida para el compostaje comunitario; es decir, que pase del 25% al 30%. Dicha medida tendría un doble objetivo: por un lado, fomentar el reciclaje y, por otro, aliviar la presión fiscal de la ciudadanía. Según el informe de la interventora, dado que estas enmiendas no suponen, en general, grandes cambios en los impuestos y las tasas, aprobarla o no aprobarla es una decisión política. Claro que afecta a los ingresos del Ayuntamiento y, por consiguiente, a los presupuestos municipales. Entienden que es importante mejorar el nivel de cobertura de los servicios municipales, pero les parece que en vista del contexto socio-económico hay que establecer prioridades y que sería beneficioso hacer este esfuerzo para con la ciudadanía. Así, mantienen su propuesta y solicitan al pleno que tenga en cuenta estas enmiendas y que vote a favor de las mismas, para que así se recoja en las ordenanzas fiscales de 2018, dado que sería para el bien de la ciudadanía. Y es que cuando se aprueban las ordenanzas fiscales se debe prestar atención a la economía municipal, claro, pero también les corresponde prestar atención a la economía de la ciudadanía.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldeak proposamen bat egin zuela, hortik adostasuna izan dutela eta erdibideko zuzenketa bat aurkezten dutela. Hasierako proposamena bertan behera geratzen da, eta erdibidekoa mantentzen dute. Azken honen inguruan komentatu nahi du eskualdean, eta bereziki Errenterian, egoera eta testuinguru sozioekonomikoa larria dela, proposatzen dutela, aprobetxatuta Foru Ogasuneko oparoaldia, Udalek lasaialdia izango dutenez, herritarrei presio fiskala arintzea eta, are gehiago, aurreko ekitaldian zenbait tasa nabarmen igo zirenean. Talde Sozialistak 2018ko Ordenantza Fiskalak onartzeko egindako proposamenak bi helburu argi zituen: lehen aipatutakoa, alegia, errenteriarren presio fiskala arintzea, eta Udalaren diru biltzeko eta inbertitzeko gaitasuna mantentzea, erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea arriskuan jarri gabe. Beren jarrerarekin koherenteak izan dira eta seriotasun eta ardura berarekin argudiatu dute. Ezin izan dituzte beren asmoak % 100ean adostu, baina positiboa iruditzen zaie emandako pausoa, lortu baitute zaborra bildu eta hondakinak desagerrarazteko zerbitzuaren gaineko tasa izoztea datorren urterako. Horrek esan nahi du herritarren poltsikoak berriz ez duela kalterik izango, are gehiago, tasa horren urteko eragina handia bada. Beti izan dute buruan haratago joateko asmoa, baina horrekin ez zuten lortuko gobernu-taldearekin adostu dute onura fiskal nabarmena. Irakurketa erraza da. Zaborren tasa izoztuta errenteriarrek ordainduko dute gobernu-taldearen hasierako proposamenean baino gutxiago.

*Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas-Vascos) manifestando que su Grupo había planteado una propuesta, a partir de ahí se ha producido un consenso y presentan una enmienda transaccional. La propuesta inicial presentada decae y mantienen la transaccional. Acerca de esta le gustaría comentar que visto que la situación y el contexto socio económico en la comarca y en especial en Errenteria es grave, proponen, aprovechando la bonanza producida en la Hacienda Foral, lo que supondrá un desahogo a los ayuntamientos, aliviar la presión fiscal sobre los vecinos y con más razón cuando en el ejercicio anterior ya sufrieron un considerable aumento en algunas tasas. La propuesta realizada por el Grupo Municipal Socialista para aprobar las Ordenanzas Fiscales de 2018 tenía dos objetivos claros; el mencionado antes, aliviar la presión fiscal de los ciudadanos de la Villa y mantener la capacidad de recaudación e inversión del Ayuntamiento sin comprometer la calidad de los servicios que se prestan desde la institución. Han mantenido con coherencia su postura y argumentado la misma con seriedad y responsabilidad. No han podido acordar al 100 % sus pretensiones, pero valoran positivamente el paso dado, consiguiendo que la tasa del servicio de recogida de basura y eliminación de residuos se congele para el próximo año. Ello va a suponer que el bolsillo de los ciudadanos no se vea otra vez perjudicado y más congelando la subida de una tasa cuya repercusión anual es importante. La pretensión de ir más lejos siempre ha estado en su mente, pero con ello no hubieran conseguido el ostensible beneficio fiscal que han acordado con el Equipo de Gobierno. La lectura es sencilla. Con la congelación de la tasa de basuras los ciudadanos de la Villa van a pagar menos que en la propuesta inicial realizada por el Equipo de Gobierno.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Txasko jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez duela gehiegi errepikatu nahi, momentu desberdinetan adierazi direlako hainbat datu, baina beharrezkoa dela iruditzen zaio azaltzea zer testuingurutan proposatzen diren ordenantza fiskal hauek, bestela ez baitira ulertzen. Alde batetik, jakin behar da testuinguru sozioekonomikoa herritarrentzat ez dela oso ona eta horregatik azken urteetan proposatu dituztela hainbeste izozketa ordenantza fiskaletan. Gainera, izozketa horien ondorioz azken urteetan Udalak bilketa propioa egiteko % 44,7ko gaitasuna zuen, eta gaur egun 40,2koa; alegia, ia 4,5 puntu jaitsi dute gaitasun propioa, eta hori ahulezia handia da herrirako. Datu hori garrantzitsua iruditzen zaio. Azken urteetako izozketen ondorioz gutxiago jasotzen dute eta kanpotik jasotzen duten diruarekiko mendekotasun handiagoa dute. Esan behar da Gipuzkoan batezbestekoa dela % 47, hau da, zazpi puntu altuagoa, horrek esan nahi duen guztiarekin. Datu batzuk eman ditu adibide gisa. Hondakinen zerbitzuaren ondorioz iaz tasak igo ziren, ez da sartuko iazko eztabaidan, baina izan zen GHKtik jasanarazitako kostuengatik. Hala eta guztiz ere, nahiz eta diru hori igo, egoera horretan iaz zerbitzu horiek estaltzen baziren % 46an, momentu honetan proposatutako igoera guztiarekin ere % 42a estaltzen dute, hau da, lau dezima gutxiago, geroz eta gutxiago estaltzen ditugu zerbitzuak gure diruarekin. Arriskua dago hor, behin baino gehiagotan esan izan dute. Beste adibide bat: uraren tasa ere izoztuta egon da azken hiru urteetan, eta horren ondorioz geroz eta gutxiago ordaintzen dute eta agian pentsatuko dute merkeagoa dela, baina ez da hala, hiru urte hauetan gutxienez igo dute % 6,78 kostua, eta udal-gobernuak ez du batere igo. Berriz ere gauza bera, balioa igo egiten da, haiek ez dute igotzen, baina sarrerekin ordaintzen dute; gerora begira, arriskua. Eta gauza bera KPIarekin. Azken hiru urteetan

*Interviene en euskera el Sr. Txasko (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifiesta que no se quiere repetir, porque se han dado algunos datos, pero le parece necesario explicar en qué contexto se proponen las presentes ordenanzas fiscales, dado que de otra manera no se entienden. Por un lado, hay que saber que el contexto socio-económico no es muy bueno para la ciudadanía, y que por eso en los últimos años se han propuesto tantas congelaciones en las ordenanzas fiscales. Además, a consecuencia de dichas congelaciones, el Ayuntamiento ha pasado de tener una capacidad de recaudación propia del 44,7%, y al 40,2% actual; es decir, la capacidad propia ha descendido casi 4,5 puntos, y eso debilita el pueblo. Le parece importante ese dato. A consecuencia de las congelaciones de los últimos años se recauda menos y dependen más del dinero que se recibe de fuera. Hay que decir que en Gipuzkoa la media es del 47%, es decir, 7 puntos más alto, con todo lo que ello supone. Dará unos datos como ejemplo. El pasado año, a consecuencia del servicio de residuos se subieron las tasas, no entrará en el debate, pero fue por los gastos repercutidos desde GHK. Sin embargo, pese a esa subida, si con esa situación el pasado año dichos servicios se cubrían al 46%, aun con la subida propuesta sólo se cubre el 42%, es decir, cuatro décimas menos, cada vez cubrimos menos del servicio con nuestro dinero. Ahí está el riesgo, ya lo han dicho más de una vez. Otro ejemplo: la tasa del agua se ha congelado durante los tres últimos años, y por consiguiente se paga cada vez menos y tal vez piensen que el servicio es más barato, pero no es así, en estos tres años la subida del coste ha sido como mínimo del 6,78%, y el gobierno municipal no ha aplicado ninguna subida. Volvemos a lo mismo, el valor sube, el gobierno no aplica subida, pero lo abonan con los ingresos; riesgo de cara al futuro. Y lo mismo sucede con el IPC, que en los tres últimos

kalkulatzen zen hurrengo urtekoarekin. Izozten eta izozten aritu dira, baina arriskua hor dago, eta behin eta berriz esan dute. Datuen inguruan informazio orokorra eskatu zen, eta kostuen azterketa orokor bat egin zuten, eta ikusten zen zein urruti zeuden egon behar zuten tokitik, eta argi gorria piztu zen. Erraza da esatea, baina beraiek ematen dute zerbitzua eta beraiek egin behar diote aurre. Eta ezin da pentsatu dirua hortik etorri dela, bestela badakigulako zer gertatzen den makalaldia etortzen denean, dirurik ez dagoenean ia nork ordaintzen duen. Dirurik etortzen ez denean zer egin behar da? Bat-batean herritarrei izugarrizko igoerak egin? hori ez da arduratsua. Laburbilduz, oreka bilatzen saiatu dira, kontuan hartu dute herritarren egoera, baina baita zerbitzu publikoen kostua bermatzeko beharra ere, eta horregatik proposatu dute proposatu dutena. Azken finean, iaz ordenantza fiskalak eztabaidatzerakoan antzeko kexa jaso zuten EAJrengandik eta eskatu zutena izan zen dokumentazio gehiago, eta aurten dokumentazioa barra-barra banatu dute: Gipuzkoa mailakoa, azterketa konkretuak, kostuen azterketa... Ez daki zerbaitetarako balio duen. Beren ustez, talde batzuk arduraz jokatu dute eta ahalegina egin dute hori ulertzeko, zer egoeratan gauden ulertzeko, eta horren arabera bat egin dute errealitatearekin; negoziaketa batzuk egin dituzte eta oreka bat bilatu dute. Beste batzuk azterketa horiek egin ondoren eta proposamena eta kostuak ikusi ondoren, proposatu dutena da diru-sarreretan 230.000 gutxiago biltzea. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da azkenean geratuko den proposamenarekin kalkulu bat egiten badute sarrera arrunten batezbesteko handitzearekin, txostenen arabera, igotzen dena da % 0,13. Izan ere, tasa potenteenak izoztu egiten dira, salbuespen batzuekin, txikienetan igotzen dute % 2 hori, baina proportzionaltasun horretan batezbestekoa oso-oso txikia da, % 0,13. Gobernu-talde gisa, erantzukizuna beren gain hartzen dute, badakitelako zerbitzuek zer

años se calculaba sobre el del año siguiente. No han hecho más que congelar, pero ahí está el riesgo, y están venga que decirlo. Solicitaron información general sobre los datos, y realizaron un estudio general de gastos, y vieron que estaban muy lejos de donde deberían estar, y se encendió la luz de alarma. Se dice fácil, pero es el Gobierno Municipal el que ofrece el servicio y el que tiene que hacerle frente. Y no se puede pensar que el dinero ha venido de ahí, porque si no sabemos lo que pasará cuando lleguen las vacas flacas, a ver quién paga cuando no haya dinero. ¿Qué harán cuando no entre dinero? ¿Aplicar de repente grandes subidas? eso no es actuar con responsabilidad. En resumen, han procurado buscar un equilibrio, han tenido en cuenta la situación de la ciudadanía, pero también la necesidad de garantizar el coste de los servicios públicos, por eso han propuesto lo que han propuesto. Al fin y al cabo, el pasado año en el debate sobre las ordenanzas fiscales recibieron una queja parecida del PNV y solicitaron más documentación, y este año han facilitado mucha documentación: a nivel de Gipuzkoa, estudios concretos, estudios de gastos... No sabe si ha servido para algo. A su parecer, algunos grupos han actuado con responsabilidad y han hecho el esfuerzo de entender la situación en la que estamos, y en función de eso han entendido la realidad; han tenido unas negociaciones y han encontrado un equilibrio. Otros, tras realizar dichos estudios y ver la propuesta y los costes, han propuesto reducir 230.000 € en la recaudación. De todas maneras, cabe subrayar que si hacen un cálculo con la propuesta final con la subida media de los ingresos corrientes, según el informe, sube un 0,13%, ya que las tasas más potentes se han congelado, con unas pocas excepciones, suben ese 2% en los más pequeños, pero con esa proporcionalidad la media es muy muy pequeña, 0,13%. Como Grupo de Gobierno asumen

kostu duten eta kostu hori udalak jaso behar duela, eta lehen esan duen bezala, ezin dutelako beste esku batzuengan utzi ardura hori, kanpotik etortzen den diruarekin ordaintzeko; badakigu gero zer geratzen den. Denek dakite zertaz ari diren azaldutako testuinguru honetan proposatzen direnean ordenantza fiskal hauek, eta denek dakite zertan ari diren egoera honen aurrean proposatzen dutenean diru-sarrerak murriztea 230.000 €.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du ez dituela Ogasuneko delegatuaren datuak errepikatu nahi. Aipatutako testuinguru sozio-ekonomikoan, argi dago gobernu-taldeak egindako politikak ez duela dirua biltzeko grinarik. Azken urteetako izozketekin sarrerak jaitsi egin dira, hala tasetan nola zergetan; adibidez, 2013ko % 20,52tik 2014ko 18,75era edo 2015eko 18,63ra, eta 2016an 17,94ra. Bigarren puntuan kontu-hartzailetzako txostena aztertuta, ez da gomendatzen oro har 2017ko sarrerak gutxitzea eragiten duen erabakirik hartzea, eskertu behar dira proposamenak eta koherentzia. Proposatutako zuzenketan ados daude hiru taldeak. Herritarrak gaizki pasatzen ari dira eta errealitate hori arintzeko, baliabide nahikoak izan behar dituzte herritarren beharrei erantzuten dieten kalitatezko zerbitzuak emateko. KPIaren igoera baremo baten modukoa da, gaur egungo 1,1 da, eta horrek agerian uzten du proposamen honen asmoa ez zela dirua biltzea. KPIa da landu den parametroetariko bat. Zuzenketei dagokienez, hobariarekin jokatzea ona da, iruditzen zaie justiziakoa dela Udalari gastu gutxien eragiten dietenak tasa gutxiago ordaintzea. Ez dute nahi auzo-konpostajea desagertzerik. Beren botoa proposamenaren aldekoa izango da.

la responsabilidad, porque saben qué coste tiene y que el Ayuntamiento debe recaudar ese coste, y tal y como ha mencionado anteriormente, porque no pueden dejar esa responsabilidad en manos de otros, para pagarlo con el dinero que viene de fuera; sabemos lo que queda luego. Todo el mundo sabe de qué está hablando cuando en este contexto se proponen estas ordenanzas fiscales, y saben qué están haciendo cuando proponen reducir los ingresos 230.000 €.

*Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que no quiere repetir los datos que ha dado el Delegado de Hacienda. En el contexto socio-económico citado, la política desarrollada por este Equipo de Gobierno, queda claro que no tiene un afán recaudatorio. Con las congelaciones de los últimos años ha habido una caída de ingresos, tanto en las tasas como en los impuestos, por ejemplo desde el 2013 con un porcentaje de un 20,52 al 2014 18,75 o 2015 18,63 y en el 2016 17,94. Analizando el informe de intervención en el punto dos no se recomienda adoptar acuerdos en terminos globales que acarreen una disminución de ingresos en comparación con el ejercicio 2017, hay que agradecer las propuestas y la coherencia. La enmienda propuesta es compartida por tres formaciones. Los vecinos y vecinas lo están pasando mal, para mitigar esta realidad, deben contar con unos recursos suficientes que permitan ofrecer unos servicios de calidad que respondan a las necesidades de los vecinos y vecinas. La subida del IPC es como un baremo, el actual es del 1,1, esto hace patente que no exista un afán recaudatorio en esta propuesta. El IPC es uno de los parámetros con el que se ha trabajado. En cuanto a las enmiendas realizadas, jugar con la bonificación es bueno, consideran que por justicia quienes menos gasto generan al Ayuntamiento menos tasas deben de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

pagar. No quieren que el compostaje comunitario desaparezca. Su voto va a ser a favor de la propuesta.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du kontziente direla diru-sarrera gutxiago edukitzeak eragina duela Udaleko kontuetan. Hala ere, lehen esan duten moduan, iruditzen zaie udal honek daukan egoera ekonomikoak hori baimentzen duela. IrabaziZeko bozeramaileak aipatu du kontu-hartzailearen txostenak ez duela gomendatzen diru-sarrerak aurreko urtekoak baino txikiagoak izatea, baina haiek adostutako proposamenak jaitsiera bat dakar, EAJrena baino txikiagoa, baina badakar.

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que son conscientes de que tener ingresos menores afecta a las cuentas municipales. Sin embargo, tal y como antes ha dicho, les parece que la situación económica actual del A
yuntamiento lo posibilita. El portavoz de IrabaziZ ha mencionado que el informe de la interventora no recomienda que los ingresos sean menores que los del año pasado, pero su propuesta también conlleva una bajada, menor que la del PNV, pero bajada al fin y al cabo.

* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du hemen planteatzen dela 2018an igotzea 105.000 €, hori zela aurreikuspena. Alderdi Sozialistak planteatzen duenak suposatuko luke 3.000 € soilik igotzea, alegia, planteatzen zen igoeratik 102.000 € jaistea, eta EAJk planteatzen duena da 125.000 € jaistea 230.000 € planteatzen zen proposamenetik. Baina planteatzen ari direna da 135.000 euroko jaitsiera aurreko urtean bildu zenaren aldean.

* Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que aquí se plantea aumentar 105.000 € en 2018, esa es la previsión. La propuesta del Partido Socialista supondría aumentar únicamente 3.000 €, es decir, disminuir el aumento propuesto en 102.000 €, y el PNV propone disminuir 125.000 € de los 230.000 € que se proponían; propone minorar 135.000 € la recaudación con respecto al año anterior.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du oraintxe jaso dituztela datuak eta begiratu batean iruditu zaiela igoera zela. Esaten ari ziren bezala, bi alde daude hemen: udalaren kontuak eta herritarren egoera sozioekonomikoa. Esan duten moduan, lehentasunak ezarri behar dira eta haiek ikusi dutena da aurreko urteetako egoera aldatu ez denez eta aurreko urteetan esfortzu bat egin denez, aurten ere esfortzu hori egiteko gai zirela eta herritarrek eskertuko luketela. Hori da EAJren posizioa. Udala beste egoera batean egongo balitz, agian ez lukete proposamen hori egingo, baina Udalaren kontuak

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que acaban de recibir los datos y a primera vista le había parecido que había una subida. Tal y como estaba diciendo, aquí hay dos partes: las cuentas municipales y la situación socio-económica de la ciudadanía. Como dicen, se deben establecer prioridades y lo que su partido ha visto es que debido a que la situación de años anteriores no ha mejorado y que en años anteriores se ha hecho un esfuerzo, son capaces de volver a hacer ese esfuerzo este año y la ciudadanía lo agradecería. Esa es la posición del PNV. Si el Ayuntamiento

ikusita, iruditzen zaie ez dela ardurarik gabe jokatzea eta proposamena gauzatzea posiblea dela.

* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du sentsazioa duela urtetik urtera gobernutik proposamen bat egiten denean, oposizioko alderdiek ─eta aurten zorionez Alderdi Sozialistarekin akordio batera iritsi dira, besteak beste, kontziente izanik egoera ekonomikoa zein den─, EAJk zehazki, urtetik urtera gobernuaren proposamen horren aurrean proposamena beti da gutxiago biltzekoa. Ulertu daiteke, baina aurten iritsi dira puntu batera non jada ez den gutxiagotzea, baizik galtzea, 125.000 € galtzea. Egon ziur izoztea aurkeztu izan balute planteamendu gisa tasa eta zerga guztietan, EAJk oraindik planteatuko lukeela jaitsiera bat, beti zeozer gutxiago planteatu behar duelako. Iaz esan zuen eta aurten berriz esango du, debateak haratago joan behar duela, zalantzarik gabe egoera ekonomikoa gogorra da, baina aurten ere gauza bera esango dute, egoera ekonomikoa gogorra delako eta kasu honetan EAJk ondo dakien moduan, gizarte-zerbitzuetako beharrak ere handiagoak dira, eta behar horiei erantzun egin behar zaie. Gustatuko litzaioke urteren batean kontu honetan arrazoi pixka bat jartzea eta planteamendu serio bat egitea, sentsazioa baitu Udalaren egoera ekonomikoa txarra edo ona izan, egingo litzatekeen planteamendua beti izango litzatekeela beheragokoa. Izan ere, udalaren egoera ekonomikoa 2012koa baina hobea izan daiteke, baina gastuak ere handiagoak dira orain ordukoak baino, eta gastu horiei aurre egin behar zaie, eta jendearen beharrei ere erantzun behar zaie. Bestela ez du ulertzen zergatik beste leku batzuetan ez diren jaisten zergak hori izango balitz logikoa, pentsatzen baitu Foru Aldundiaren egoera ere hobea izango dela, baina

estuviera en otra situación tal vez no harían esa misma propuesta, pero vistas las cuentas municipales les parece que no es irresponsable y que es posible materializar la propuesta.

* Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que tiene la sensación de que año tras año cada vez que el gobierno hace una propuesta los partidos de la oposición ─este año, por suerte, han llegado a un acuerdo con el Partido Socialista, entre otras razones porque son conscientes de la situación económica─, especialmente el PNV, ante la propuesta del gobierno su propuesta siempre es la de recaudar menos. Puede ser comprensible, pero este año han llegado al punto de no de recaudar menos, sino de perder, perder 125.000 €. Está seguro de que si hubieran presentado la congelación de todas las tasas e impuestos, el PNV hubiera planteado una bajada, porque siempre tiene que plantear algo menos. El año pasado lo dijo, y este lo vuelve a decir, el debate debe ir más allá, no hay duda de que la situación económica es dura, pero este año volverán a decir lo mismo, porque la situación económica es dura y en este caso, tal y como el PNV sabe, las necesidades en servicios sociales también son mayores y también hay que dar respuesta a esas necesidades. Le gustaría que algún año pusieran un poco de cordura en este asunto y que hicieran un planteamiento serio, ya que tiene la sensación de que sea la situación económica buena o mala, el planteamiento siempre sería bajar. Puede que la situación del Ayuntamiento sea mejor que la del 2012, pero los gastos actuales también son mayores y hay que hacerles frente, y hay que responder a las necesidades de la gente. De otra manera no se entendería por qué en otros lugares no se bajan los impuestos si eso fuera lógico, ya que piensa que la situación de la Diputación también sería mejor. Pero



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hemen ez daki nolako alardea egiten duten bilketa igo dela eta oso ondo joan dela urtea, eta ez du ulertzen zergatik kasu horretan ez den birplanteatzen jaits daitekeela bilketa edo jaits daitezkeela zergak, baina ez zaio logikoa iruditzen. Horrelako emaitzak izatea ona da, ulertzen dute ona dela administrazioarentzako dirua delako eta administrazioarentzako dirua, herritarrentzako dirua delako, eta, bereziki, berriro dio, behar delako premia berezian dauden pertsonentzat. Koherentzia pixka bat eskatzen du kasu baterako eta besterako, eta ea datorren urtean koherentzia hori eramaten duten praktikara, bestela jarraituko baitute logika berean. Aurtengo proposamena tokiz kanpokoa ere iruditzen zaio.

aquí se está haciendo alarde de que la recaudación ha aumentado y que el año ha ido muy bien, y no entiende por qué en ese caso no se replantean que la recaudación puede disminuir o que los impuestos se pueden bajar, pero no le parece lógico. Es bueno tener estos resultados, entiende que es bueno porque es dinero para la administración y, dinero para la administración significa dinero para la ciudadanía, y, especialmente, vuelve a repetir, porque se necesita para las personas en situación especial de necesidad. Pide un poco de coherencia para unos casos y otros, y a ver si el año que viene ponen en práctica esa coherencia, porque de otra manera continuarán en la misma lógica. La propuesta de este año le parece incluso fuera de lugar.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du Gipuzkoako testuingurua oro har eta zehazki hemengoa ez direla berdinak, zerga motak ere ez direla berdinak, udal-zergak ez dira progresiboak eta denei berdin eragiten diete, dituzten diru-sarrerak dituztela ere. Bestalde, hobarien inguruan gustatuko litzaioke esatea iruditzen zaiela eskubide berdina duela % 30eko hobaria edukitzeko 5. edukiontziaren bidez birziklatzearen aldeko apustua egiten duenak edo auzo-konposta egiten duenak. Ez litzateke bideragarria izango Errenteriako auzo guztietan bizilagun guztiek auzo-konposta egitea ere; 5. edukiontziaren bitartez birziklatzen dutenen hobaria % 30era igotzea erabat zentzuzkoa iruditzen zaie.

* Interviene en euskera la Sra.Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que el contexto general de Gipuzkoa y el de Errenteria no son iguales, que los tipos de impuestos tampoco son los mismos, los impuestos municipales no son progresivos y afectan a todas las personas por igual, al margen de los ingresos que tengan. Sin embargo, en relación a las bonificaciones le gustaría decir que les parece que tienen el mismo derecho a tener una bonificación del 30% las personas que apuestan por reciclar mediante el quinto contenedor que quienes optan por el compostaje comunitario. No sería viable que en todos los barrios de Errenteria todas las personas quisieran realizar compostaje comunitario; les parece totalmente razonable subir al 30% la bonificación de quienes reciclan mediante el quinto contenedor.

* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez dakiela kontziente diren hobariaren kontuarekin auzo-konposta egiten denean herritarrari plus bat eskatzen zaiola, auzo-konpostak eskatzen duena da ingurumenarekiko sentsibilizazio

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que no sabe si son conscientes de que en lo que a la bonificación se refiere, a las personas que participan en el compostaje comunitario se les pide un plus, es

sendo bat, eta tokia zaintzea, eta gainean egon behar da; arduradun bat egoten da, noizean behin bueltak emateko konpostari, etab. Beste inongo herritarri ez zaio eskatzen hori; besteek egiten dutena da txartel batekin edukiontzia ireki eta poltsa bota. Zalantzarik ez dago ezin dutela auzo-konposta jarri herri guztian, 40.000 biztanleentzako. Baina hortik ezin dute ondorioztatu hobariak berdina izan behar duela, bati eta besteari eskatzen zaion esfortzua ez baita berdina. Zalantzarik gabe, benetan arazorik izango balute eskaera ematen den eskaintza baino askoz ere handiagoa delako, orduan planteatu beharko lukete ia zozketa egin beharko litzatekeen edo zer. Baina hori beste kontu bat da, eta iruditzen zaio ezin dituztela konparatu bosgarren edukiontzian txartel bat jarrita poltsa botatzea, edo ardura bat hartzea, konpostajea zaintzea, gainean egotea, ikustea ondo dagoen ala ez, nahastea; pertsona horrek egiten duen ekarpena handiagoa da eta diferentzia egon behar da bi kasuen artean. Berriro dio, arazoa izango balitz jende asko dagoela prest auzo-konposterako, orduan planteatu beharko lukete beste sistema bat, zozketa egin beharko litzatekeen edo beharraren arabera izan beharko lukeen, alegia, norberaren gaitasun ekonomikoaren arabera. Baina hori beste debate bat da, eta nahi badute, egunen batean hel diezaiokete, ikusteko zer irtenbide topa diezazkioketen.

Amaitu dira mintzaldiak.

2018ko Ordenantza Fiskalak aldatzeko EAJ/PNV Taldeak aurkeztutako proposamenari egindako zuzenketa partziala bozkatu da ondoren.

Udalbatzak aurka emandako 11 botoren gehiengoz

necesario estar muy sensibilizado y cuidar el lugar y estar encima; suele haber una persona responsable para darle la vuelta al compost de vez en cuanto, etc. A ninguna otra persona se le pide lo mismo; el resto de personas abre el contenedor con una tarjeta y deposita la bolsa. No hay duda de que no es factible instaurar el compostaje en todo el municipio, para los 400.000 habitantes. Pero de ahí no se puede concluir que la bonificación tenga que ser la misma para ambos, porque el esfuerzo que se le requiere a una y otra persona no es el mismo. Sin lugar a dudas, si surgiera el problema de que la demanda es muy superior a la oferta, se plantearían hacerlo por sorteo o ya verían cómo solucionarlo. Pero esa es otra cuestión, y le parece que no pueden comparar el hecho de depositar una bolsa en el quinto contener haciendo uso de la tarjeta, o asumir una responsabilidad, hacerse cargo del compostaje, ver si va bien o no, mezclarlo; la aportación de esa persona es mayor y debe haber distinción entre ambos casos. Vuelve a decir que si el problema fuera que hay mucha gente dispuesta a tomar parte en el compostaje comunitario se deberían plantear otro sistema, hacer sorteo o adjudicarlo en función de la necesidad, es decir, según la capacidad económica de cada persona. Pero ese es otro debate y si se quiere, lo pueden abordar en otro momento para estudiar las posibles soluciones.

Finalizadas las intervenciones.

Se pasa a votar la enmienda parcial presentada por el Grupo EAJ/PNV a la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018 que consta en el expediente:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos

(Orereta/Errenteriako EHBildu y Errenteria IrabaziZ), 6 abstentzioekin eta aldeko 3 botorekin (EAJ/PNV).

en contra, (Orereta/Errenteriako EHBildu y Errenteria IrabaziZ), 6 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 votos a favor (EAJ/PNV).

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

Ez onartzea 2018ko Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamenari EAJ/PNV Udal Taldeak aurkeztutako zuzenketa partziala.

No aprobar la enmienda parcial presentada por el Grupo Municipal (EAJ/PNV) a la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018.

Ondoren, 2018ko Ordenantza Fiskalak Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Errenteria IrabaziZ Taldeek aldatzeko aurkeztutako proposamenari egindako zuzenketa transakzionala bozkatu da.

Seguidamente pasa a votarse la enmienda transaccional a la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018 presentada por los Grupos Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ que consta en el expediente:

Udalbatzak alde emandako 17 botoren gehiengoz (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), 6 abstentzioekin eta aurkako 3 botorekin (EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 17 votos a favor, (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ), y 3 votos en contra (EAJ/PNV).

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

Onartzea 2018ko Ordenantza Fiskalak Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Errenteria IrabaziZ Taldeek aldatzeko aurkeztutako proposamenari egindako zuzenketa transakzionala

Aprobar la enmienda transaccional a la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018 presentada por los Grupos Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ:

Ondoren, 2018ko Ordenantza Fiskalak hasiera bateko onarpena bozkatu da, behin Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Errenteria IrabaziZ Taldeek aurkeztutako zuzenketa transakzionala gehituta.

Seguidamente pasa a votarse la aprobación inicial de las Ordenanzas Fiscales 2018 una vez incorporada la enmienda transaccional presentada por los Grupos Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ:

Udalbatzak alde emandako 17 botoren gehiengoz (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta Euskal Sozialistak-Socialsitas Vascos)), eta

El Pleno de la Corporación por mayoría de 17 votos a favor, (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ),



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

aurkako 3 botorekin (EAJ/PNV).

**E R A B A K I  D U**

1. Aurkeztutako Ordenantza fiskalen aldaketen proposamenari, eranskinean jasotakoa, hasierako onespena ematea.

2. Akordioa jendaurrean jartzea 30 lanegunez. Epe horretan erreklamazio zein iradokizunak egin ahal izango direlarik. Egoki den iragarkia Udalaren Iragarki Oholean, udal web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batean argitaratuko da.

3.- Ordenantzen aldaketa eta eranskinen inguruko erabakiak behin betikoak izango dira, eta beraz ez dute erabaki berririk beharko, baldin eta jendaurreko informazio-epea amaitu ondoren ez bada erreklamaziorik jaso.

**8. Proposamena: 2017-KALD000013 Kreditu gehigarriak, kreditu aldaketa espedientearen hasierako onespena**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

2017ko urriaren 25ean, Ogasun eta Garapen

y 3 votos en contra (EAJ/PNV).

**A C U E R D A**

1.- Aprobar inicialmente la propuesta de modificación de las Ordenanzas fiscales que se detalla en el anexo.

2.- Someter el acuerdo a información publica por el plazo de 30 días hábiles, a efecto de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse. Se publicará el correspondiente anuncio en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, web municipal, Boletín Oficial de Gipuzkoa, y al menos un diario de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3.- Los acuerdos adoptados sobre modificaciones de las Ordenanzas fiscales y sus anexos devendrán definitivos, sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

**8. Propuesta: aprobación inicial expediente modificación de créditos 2017-KALD000013 de modificación de créditos adicional.**

Visto el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de créditos adicionales, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto que en fecha 25 de octubre de 2017, a propuesta



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 9 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

**E R A B A K I A**

**Lehenengoa**.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu y Errenteria IrabaziZ) y 9 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV)

**A C U E R D A**

**Primero**.- Aprobar el expediente de modificación de créditos, modalidad creditos adicionales, que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

**KREDITU GEHIGARRIAK – CREDITOS ADICIONALES**

| **Kapituluak Capitulos** | **Izena - Denominación** | **Gehikuntzak Aumentos** |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK – INVERSIONES REALES | 1.500.000,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES** | | **1.500.000,00** |

**FINANTZAKETA - FINANCIACIÓN**

| **Kapituluak Capitulos** | **Izena - Denominación** | **Zenbatekoa Importe** |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) (INGRESOS) | FINANTZA AKTIBOAK – ACTIVOS FINANCIEROS | 1.500.000,00 |
| **GUZTIRA - TOTAL** | | **1.500.000,00** |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**Bigarrena**.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

**Segundo**.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**Hirugarrena**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**Tercero**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**9. Proposamena: 2017-KALD000014 Kompromiso kreditua, kreditu aldaketa espedientearen hasierako onespena**

**9. Propuesta: aprobación inicial expediente modificación de créditos 2017-KALD000014 de créditos de compromiso.**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, Konpromiso kreditua eratzekoa, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Visto el expediente de modificación de créditos, para la constitución de Crédito de Compromiso, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 22. artikuluan ezarritakoarekin.

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 22 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

2017ko urriaren 25ean, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Visto que en fecha 25 de octubre de 2017, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 9 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu y Errenteria IrabaziZ) y 9 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**E R A B A K I A**

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, Konpromiso kreditua eratzekoa, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

**A C U E R D A**

**<u>Primero</u>**.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante constitución de Crédito de Compromiso que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

**Konprometitzen diren gastuak**

**Gastos que se comprometen**

**5.0401.622.01.333.30. (2018).- Kultur Ekipamenduak Lekuona (ULO)** – Equipamientos Culturales Lekuona (PMS): **1.300.000,00 euro(s)**

**5.0401.622.01.333.30. (2019).- Kultur Ekipamenduak Lekuona (ULO)** – Equipamientos Culturales Lekuona (PMS): **600.000,00 euro(s)**

**<u>Bigarrena</u>**.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

**<u>Hirugarrena</u>**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**<u>Segundo</u>**.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**<u>Tercero</u>**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**<u>10. Proposamena: "Lekuona udal Fabrika Kulturala (18/03 Esku-hartze unitatea: Lekuona) izeneko gauzatze-Proiektuaren barruan definitutako obrak" kontratatzea.</u>**

Komenigarritzat jo da "Lekuona udal Fabrika Kulturala (18/03 Esku-hartze Unitatea: Lekuona) izeneko Gauzatze-Proiektuaren barruan definitutako obrak" kontratatzea.

Ikusirik dagokion Proiektua, VAUMM

**<u>10. Propuesta: contratación de las "Obras definidas en el Proyecto de Ejecución Fábrica municipal de Cultura Lekuona (Unidad de Intervención 18/03: Lekuona)".</u>**

Vista la conveniencia de proceder a la contratación de las "Obras definidas en el Proyecto de Ejecución Fábrica municipal de Cultura Lekuona (Unidad de Intervención 18/03: Lekuona)".

Visto que se ha redactado el correspondiente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P.-k idatzi duela, 2017ko irailan.

Proyecto técnico por VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P., en setiembre de 2017.

Horretarako lizitazioa arautuko duten Baldintza Ekonomiko Administratiboen eta teknikoen Agiriak idatzi dira.

Visto que se han redactado al efecto los correspondientes Pliegos de Condiciones Económico-administrativas y técnicas que han de regir la contratación.

Udal Arkitektoak, Xabier Agirrek txostena eman du.

Visto el informe del Arquitecto Municipal, Xabier Agirre.

Hirigintzako Ordezkariak proposamena egin du.

Vista la propuesta del Delegado de Urbanismo.

Udal kontuhartzaileak txostena eman du.

Visto el informe emitido por la Interventora municipal.

Ondare eta Kontratazioko Arduradunak txostena eman du.

Visto el informe emitido por el Responsable de Contratación y Patrimonio.

2017Ko urriaren 23ko Kontratazio Mahaiak txostena eman du.

Visto el informe de la Mesa de Contratación de 23 de octubre de 2017.

2017ko urriaren 25ean, Antolaketa Batzordeak, aldeko txostena eman du.

Visto el informe favorable de la Comisión de Organización de fecha 25 de octubre de 2017.

Hauek mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Collar jaunak (Errenteriako IrabaziZ) euskaraz adierazi du ikusita erakundeen arteko korapiloa askatuta dagoela eta alderdi guztiak ados daudela Lekuona proiektuaren inguruan, eta aurreko bi puntuetan adierazitakoarekin ikusita dirua badagoela, hurrengo fasea dela proiektua herritarrekin partekatzea, herritarrei zabaltzea eta herritarrekin elkarlanean aritzea, eragile sozialekin, eragile kulturalekin, eragile ekonomikoekin eta profesionalekin, proiektua gauzatzeko.

* Interviene en euskera el Sr. Collar (Errenteriako IrabaziZ) manifestando que visto que ya se ha desenredado el nudo que se había formado entre instituciones y que todas las partes están de acuerdo en lo que al proyecto de Lekuona se refiere, y dado que según los dos puntos anteriores hay dinero disponible, el siguiente paso es compartirlo con la ciudadanía, dárselo a conocer y colaborar con toda ella, con agentes sociales, culturales, económicos y profesionales para poder desarrollar el proyecto.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du gaur erabakitzen dutela Lekuona

*Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Socialistak-Socialistas Vascos) manifestando que hoy deciden la

kultura fabrika burutzeko proiektuan definitutako obrak kontratatzeko proposamena. Hitz batean, Lekuonaren proiektu berria. Lekuona Fabrikaren norabide berria, berreskuratzen duena jatorrizko ideia, alegia lehengo okindegia kultura-zentro bihurtzea liburutegia, auditoriuma eta errenteriarrek erabiltzeko hainbat diziplinetako espazioekin; proiektu hori koherentea da sozialistek herriko kultura-sarearen benetako beharretarako defendatu duten kultura-proiektuarekin. Udalak eta Aldundiko Kultura Departamentuak hartutako akordio berriak aukera ematen du Errenteriarentzat nahiz eskualde osoarentzat onuragarria izango den proiektu berri hau sustatzeko. Herritar ororentzako kultura-zentro handia. Eguneroko kultura, herri honetan etengabekoa dena, herritarrek egunero egin eta kontsumitzen dutena, oinarrizko beharrei eta egungo joerei erantzuteko espazio eta ekipamenduekin elikatu behar da; kultura-zentroa hurbilekoa, irekia eta diziplina anitzekoa izango da, herriaren beharren araberakoa, ondo ekipatua, malgua eta moldakorra, espazio bizi eta dinamikoa urteko egun guztietan, eta aukera emango du Udalak eskaintzen dituen kultura-maila eta prestazioak. Garai berri honetan herriko kultura-kolektibo eta -elkarteekin elkarlanean egin egun beharko dugu, Lekuona Fabrika proiektu irekia, erabilgarria, iraunkorra eta errentagarria izan dadin guztiontzat. Sozialistek Udaletik publikoki adierazi dute prest daudela proiektu berri hau gauzatzen laguntzeko, horregatik bozkatuko dute proiektu berri honi ekitearen alde; baina adierazi nahi dute espero dutela iraganeko akatsak ez direla errepikatuko eta beteko dela alkateak hartutako konpromisoa, alegia, talde politikoek ahotsa izango dutela proiektu berri hau diseinatzeko, zentroaren kudeaketa-ereduari eta erabilera eta beharrei dagokienez, herriko kultura eragileekin batera.

propuesta de contratación de las obras definidas en el proyecto de ejecución de la fábrica municipal de cultura Lekuona. En una palabra “el nuevo proyecto de Lekuona”. El nuevo rumbo que ha tomado la Fabrica Lekuona, recuperando la idea original de convertir la antigua panificadora en un gran centro cultural que albergará una biblioteca, un auditorio y espacios multidisciplinares de uso general para los vecinos y vecinas de Errenteria, es el proyecto cultural coherente con las necesidades reales del tejido cultural de la Villa que siempre han defendido los Socialistas. El nuevo acuerdo alcanzado entre el Ayuntamiento y el Departamento de Cultura de la Diputación permite impulsar este nuevo proyecto beneficioso no solo para Errenteria sino para la comarca de Oarsoaldea. Un gran centro cultural para todos los ciudadanos. La cultura cotidiana, incesante en el pueblo, esa que practican y consumen los y las ciudadanas diariamente, se debe nutrir de espacios y equipamientos que respondan a las necesidades básicas y tendencias actuales; un centro cultural de proximidad, abierto y multidisciplinar, dimensionado a las necesidades del municipio, bien equipado, moderno, flexible y versátil, un espacio vivo y dinámico durante todos los días del año, permitirá elevar el nivel cultural y de prestaciones que se ofrecen desde el Ayuntamiento. Estan ante un nuevo tiempo donde deben trabajar y colaborar conjuntamente con los colectivos y asociaciones culturales de la Villa para conseguir que la Fabrica Lekuona sea un proyecto abierto, útil, sostenible y rentable para todos y todas. Los Socialistas desde el Ayuntamiento ya han mostrado públicamente su disposición a llevar a buen puerto este nuevo proyecto, por ello van a votar a favor de reiniciar este nuevo proyecto, pero también quieren manifestar que esperan que no se caiga en errores anteriores y se cumpla el compromiso realizado por el Alcalde de que los Grupos Políticos tendrán voz en el diseño de este nuevo proyecto, en su modelo de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gestión y en los usos y necesidades que vaya a tener el centro junto con los actores culturales de la Villa.

* Lopez de Echezarreta Auzmendi andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du garrantzitsua dela konturatzea gaurkoa egun garrantzitsua dela hiru urte pasa direlako osoko bilkura honetan Lekuonaren inguruko lehen hitzarmenaren inguruan hitz egin zutela. Ziurrenik, duela hiru urte argi erabaki zen Lekuona fabrika bihurtu behar zela kulturari eskainitako sorkuntza gune bat. Eta denbora honetan erronka eta aukera eta akordio desberdinak egon dira tartean, baina zinez garrantzitsua da gaur obren bigarren faseari ekitea eta nolabait, proiektuak aldaketak izan dituen arren, nagusiki mantenduta hasieratik izan dituen helburuetako batzuk. Helburu nagusiak izan litezke, alde batetik, plan estrategikoan kulturari garrantzi handia eman ziotela eta horren adierazle bat zela Lekuonako fabrika, fabrika horrek nahitaez izan behar zuela sorkuntzarako espazio bat, baina baita ere erakusleiho bat, eta horren adierazle da espazio zentrala, hainbeste negoziazio eragin zituena, auditorio eder bat izango da eta salto inportante bat emateko aukera eskainiko dio herriari. Eta, zalantzarik gabe, esperimentatzeari eta sorkuntzari eta herritarrei eskaini nahi dizkiete eredu eta bizipen horiek, eta sorkuntza eta esperimentaziorako gune bat izango da XXI. mendeari begira dagoen liburutegi zabal, anitz eta malgua eginda. Obraren proiektuak eta aurrekontuak berak adierazten dute zein garrantzitsua izango den legegintzaldi honetan obraren bigarren fasea burutu eta proiektu hau egi bihurtu ahal izatea. Egon diren gorabehera guztiak gainditu ditu eta hasieratik izan dituen helburu eta erronka nagusi batzuk mantendu, eta iruditzen zaio hori garrantzitsua dela. IrabaziZeko kideak esan duen moduan, obrari bidea ematen diote, eta, gainera, aurrekoetan baino adostasun handiagoarekin. Orain erronka garrantzitsu bat dute, proiektu kulturalaren definizioan behar den pertsona

* Interviene en euskera la Sra. Lopez de Echezarreta Auzmendi (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que es importante reconocer que el día de hoy es importante porque han pasado tres años desde que en este mismo pleno se tratara el primer convenio de Lekuona. Seguramente hace tres años claramente se decidió que la fábrica Lekuona debía convertirse en un espacio cultural de creación. En este tiempo ha habido de por medio diversos retos y oportunidades y acuerdos, pero es muy importante el hecho de que hoy damos comienzo a la segunda fase de las obras y que de alguna manera, aunque el proyecto haya sufrido modificaciones, en general se han mantenido algunos de los objetivos que en un principio se marcaron. Dichos objetivos pueden ser, por un lado, la importancia que se le dio a la cultura en el plan estratégico y que muestra de ello era la fábrica Lekuona, así como que la fábrica debía ser un espacio de creación y un escaparate, y muestra de ello es el espacio central, que ha generado tantas negociaciones; será un gran auditorio y ofrecerá al municipio la oportunidad de dar un gran salto. Sin lugar a dudas, quieren ofrecer esos modelos y vivencias a la experimentación y la creación, así como a la ciudadanía, gracias a la amplia, diversa y flexible biblioteca que se construirá. El proyecto de la obra y el presupuesto evidencian la importancia de ejecutar la segunda fase de la obra y materializar este proyecto en esta legislatura. Se han superado todas las incidencias que ha habido y se han mantenido algunos objetivos y retos principales que se marcaron al principio, y eso le parece importante. Tal y como ha mencionado el miembro de IrabaziZ, han dado lugar a la obra y, además, con un consenso más amplio que en anteriores ocasiones. Ahora deben hacer frente a un reto importante, definir el proyecto cultural en

eta eragile guztiekin lankidetzan jardutea, irudikatzen duten XXI. mendeko kultura-fabrika eta espazio hori guztiona izan dadin benetan.

colaboración con todas las personas y agentes, para conseguir que la fábrica cultural y el espacio del siglo XXI que visualizan sea de verdad la de toda la ciudadanía.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du bere taldean alde botoa eman aurretik asko hausnartu zutelako proiektuaren inguruan, kualitatiboki eta kuantitatiboki proiektu garrantzitsua baita. Ondorioztatu zen proiektu horren aldeko apustua egin behar zela, eta halaxe egin zen, pentsatu zuten proiektu horrek onura handiak ekarriko zizkiola Errenteriari, eta erreferentzia izango zela. Garrantzitsua iruditzen zitzaien, eta gogor borrokatu zuten herriaren kultura-jardueraren araberako auditorium duina egon zedin, eta iruditzen zitzaien ezin zutela diseinuan hutsik egin; horregatik eman zieten garrantzi handia erreferentziako kultura-eragileei, diseinuari zegokionez. Profesionaltasun horri heldu genion benetako beharrak definitzeko. Iruditzen zaio proiektu ona zela, baina zoritxarrez proiektu hori ez zen aurrera atera. Talde guztien artean lortu dute konponbide berria adostea, espazio berean biltzea auditoriuma, eta liburutegia. Bere taldeak proiektua babesten dute, ikusi dute eta oso interesgarria iruditzen zaie. Ezin du esan gabe utzi talde politiko gisa aukera galdua iruditzen zaiela Udalak hasieran aurreikusitako lurralde-mailako proiektua, herrialdekoa ere izan zitekeena, Errenterian ez egotea. Proiektua babestuko dute, hasieratik egin duten moduan, iruditzen zaielako herriarentzat onuragarria izango dela, baina ez dute aukera galduko esateko egun pozgarria dela, baina nolabaiteko tristura ere sentitzen dutela.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que en su Grupo político antes de dar su voto favorable fué muy reflexionado el proyecto puesto que era cualitativa y cuantitativamente un proyecto importante. Se concluyó que había que apostar por ese proyecto y así se hizo, pensaron también que era un proyecto que iba a traer muchos beneficios para el pueblo de Errenteria y lo iba a situar en una referencialidad. Consideraban importante y así pelearon con uñas y dientes que hubiera un auditorio digno de la actividad cultural que se desarrolla en el Municipio y consideraban que no debían verse abocados al fracaso en el diseño, por eso dieron mucha importancia a la participación de agentes culturales referentes a la hora del diseño. Se dejaron llevar por esa profesionalidad a la hora de determinar cuáles iban a ser las necesidades reales. Cree que era una buen proyecto, lamentablemente este proyecto no salió adelante. Se ha conseguido entre todos los Grupos un consenso a una nueva solución, la coexistencia en el mismo espacio del auditorio, de la biblioteca. Su Grupo apoya el proyecto, lo han visto y les parece que es muy interesante. No puede dejar de decir que como Grupo Político les parece una oportunidad perdida que el proyecto inicialmente previsto para este Ayuntamiento de categoría territorial, incluso de país no vaya a estar en Errenteria. Van a apoyar el proyecto como lo han venido haciendo desde un inicio porque creen que traerá beneficios para el Municipio pero no va a dejar pasar la oportunidad para señalar que es un día de satisfacción pero con un cierto regusto agriduce.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du hainbat gauza aipatu nahi dituela, proiektuaren

*Intervien el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que quiere mencionar varias cosas por la

garrantzia dela-eta. Bere ustez merezi du errepaso txiki bat egiteak, nola hasi zen Lekuona eta non dagoen orain, nola ikusten duten etorkizuna, proiektuari dagokionez. Lekuonaren hitzarmena sinatu zen 2014ko urrian Foru Aldundiarekin, Lekuonaren obren kontratazioa abian jarri zenean. Orain arte aurreikusitako obraren % 54 dago eginda, bistakoa da orain obra bestelakoa dela. Obra geldiarazi zen 2016ko uztailean, eraikinaren eraikitzailearekin desadostasunak zeudelako. Momentu horretan desadostasunak sortu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere, proiektuari zegokionez. 216ko abenduan erabilera aldatzeko protokolo bat sinatu zuten Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak. EAJko bozeramaileak adierazi duen moduan, Lekuonaren hasierako proiektuaren aldeko apustu irmoa egin zen, proiektuan sinesten zutelako, lurraldekoaz gain herrialdekoa ere bazelako. Pentsatzen zuten herriarentzat proiektu garrantzitsua izango zela, bere eraldaketarako garrantzitsua. Proiektua zergatik bertan behera geratu zen aztertu gabe, orain, protokoloa sinatu ondoren, 2017ko martxoan esleitutako proiektuaren idazketa adjudikatzen ari da, eta 2017an esleituko zitzaion enpresa bati Errenteriako Kultura Plan Estrategikoa egitea ere, eta horren baitan sartzen da Lekuona; enpresa hori Lekuona proiektua burutzen ari diren arkitektoekin lankidetzan jardun da, definitzen laguntzeko zein izango den arkitektura proiektua. Esan dezake hilabete hauetan gogor lan egin dutela onartzeko dakarten proiektu hau aurkezteko. Zalantzarik gabe bere taldeak 2013an abian jarri zuen eta 2014an lanak hasi ziren proiektu hau garrantzitsua zen, Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren parte zelako eta planteatzen zuelako jarduera sorkuntzaren aldera aldatzea. Iruditzen zitzaien herriak egoera ekonomikorako beste aukera bat bilatu behar zuela kulturaren eta sorkuntzaren alde apustu eginda. Fase berri bat zabaldu da Kulturaren Plan Estrategikoa egiteko herriko kultura- eta gizarte-eragileekin eta

importancia del proyecto. Cree que merece la pena hacer un pequeño repaso, como empieza Lekuona y en que situación se encuentra en estos momentos, como visualizan el futuro en relación con el proyecto. El convenio de Lekuona se firmó en octubre del año 2014 con la Diputación cuando se inicia la contratación de las obras de Lekuona. Hasta la fecha se ha realizado el 54% de la obra prevista, es evidente que la obra ahora es otra. La obra se paralizó en julio de 2016 por desavenencias con la constructora del edificio. En ese momento surgieron también desavenencias con la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con el proyecto elaborado. En diciembre de 2016 se firma el protocolo de cambio de uso entre Diputación y el Ayuntamiento de Errenteria. Como ha comentado la portavoz del PNV se hizo una apuesta fuerte por el proyecto inicial de Lekuona porque creían en él, era no sólo territorial sino de país. Pensaban que iba a ser un proyecto importante para este municipio, para su transformación. Sin entrar a valorar las circunstacias del porqué el proyecto cayó, en estos momentos y después de firmar el protocolo, se está llevando a cabo primero la adjudicación de la redacción del proyecto que se adjudicó en marzo de 2017, también en está fecha se adjudicó a una empresa la elaboración del Plan Estratégico Cultural de Errenteria, dentro de este se conforma la parte Lekuona, esta empresa ha colaborado junto con los arquitectos que están elaborando el proyecto de Lekuona ayudando a definir cual va a ser el proyecto arquitectónico. Puede decir que han trabajado intensamente a lo largo de estos meses para presentar ahora un proyecto que es el que se trae para su aprobación. Sin duda alguna el proyecto que su Grupo inició en el 2013 y cuyas obras se iniciaron en el 2014 era importante porque entraba en el Plan Estratégico de Errenteria 2025 y porque planteaba una transformación de la actividad en términos de creatividad. Entendían que el municipio tenía que buscar una alternativa a su situación



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

herriko alderdi politikoekin. Proiektuak jarraitzen dio Plan Estrategikotik sortu zen ideiari, orain planteatzen den fabrikak sorkuntzaren aldeko apustua egiten du, pertsonen gaitasuna sorkuntzaren arloan garatzearen alde. Beren ustez sorkuntza funtsezko elementua da herriak eta gizarteak eraldatzeko, eta, ildo horretan, apustua bera da. Ideia argia da, Lekuona fabrikak ezin du kultura-instalazio soil izan, herri honen eraldaketaren sinbolo eta ikono izan behar du baizik. Iraganean gertatu dena alde batera utzita, orain kontua da ilusioa piztuko duen proiektu bat eraikitzea, bere garaian sorkuntzaren garapenerako planteatu zen nortasun bera izango duena. Proiektu oso interesgarria eta oso landua da, beste edozeren gainetik bilatzen duena espazioak malguak izatea hainbat eskumen burutu ahal izateko, inguruan adibide gutxi dituen espazioa izango da, hainbat instalazio bisitatu dituzte: Zaragoza, Madril, Bilbo... Proiektu hau inflexio-puntu izango da, gaur abiatuko da hasierako proiektuaren birmoldaketa, gobernu-talde honek erakutsi du azkar lan egin duela, gai izan da aurreko egoerari konponbide azkarra emateko. Obrak urtarrilean hasi eta 2018ko abenduan amaituko dira. Eskerrak eman nahi dizkie talde politikoei egoera berriari egokitzeko izan duten gaitasunagatik.

económica que era estructural y que esa alternativa pasaba por la apuesta por la cultura y por la apuesta por la creatividad, es en este contexto donde se sitúan. Se abre una nueva fase para la redacción de ese Plan Estratégico de la cultura que se elaborará junto con los agentes culturales y sociales del pueblo y con los partidos políticos del municipio. El proyecto sigue encarrilándose plenamente en aquella idea que nació con el Plan Estratégico, la fábrica que ahora se plantea para su construcción, apuesta por la creatividad, por desarrollar las capacidades de las personas en el ámbito de la creatividad. Entienden la creatividad como un elemento fundamental en la  transformación de las ciudades y en la transformación de las sociedades y en este sentido es la apuesta que se sigue haciendo. La idea es clara, la fábrica Lekuona no puede ser una simple instalación cultural sino el símbolo y el icono de la transformación de este municipo. Mas allá de todo lo que haya podido ocurrir en el pasado lo que toca es construir un proyecto que sea ilusionante, que siga manteniendo la identidad que en su momento se planteó en cuanto al desarrollo de la creatividad. Es un proyecto muy interesante y muy trabajado que busca ante todo flexibilidad en los espacios para poder desarrollar diferentes iniciativas, es un espacio que tiene pocos ejemplos a su alrededor , se han visitado diferentes instalaciones, Zaragoza, Madrid, Bilbao...Es un proyecto que va a marcar un antes y un después, hoy le damos el pistoletazo de salida a la reconversión del proyecto inicial, este Equipo de Gobierno ha demostrado que ha trabajado con velocidad, ha sido capaz de resolver la situación anterior con rapidez. Las obras se iniciarán en enero para finalizar en diciembre de 2018. Quiere agradecer a los grupos políticos  la capacidad que han tenido para readecuarse a las nuevas situaciones.

Antolaketa Batzordeburuaren proposamenez.

A propuesta de la Presidenta de la Comisión de Organización.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udalbatzak, aho batez, aldeko 20 botorekin (Orereta/ Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, eta EAJ/PNV) hau erabaki du:

**E R A B A K I A**

1. ONARTZEA "Lekuona udal Fabrika Kulturala (18/03 Esku-hartze Unitatea: Lekuona) izeneko Gauzatze-Proiektua", VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P.-k idatzia, 2017ko irailan.

2.- Espedientea IREKITZEA "Lekuona udal Fabrika Kulturala (18/03 Esku-hartze Unitatea: Lekuona) izeneko Gauzatze-Proiektuaren barruan definitutako obrak" kontratatzeko.

3.- Kontratazioa era prozedura irekia (hainbat iritzi) izatea ZEHAZTEA eta tramitazioarena ohikoa.

4.- Kontratazioa espedientea ONARTZEA, lizitazioa arautuko duten baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen agiriak barne.

5.- Lizitazioa DEITZEA, eta horrela iragarriko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, **BERROGEITA (40) egun naturaleko** epean, iragarkia EBEOra bidaltze egunaren biharamunetik kontatzen hasita, modu horretan proposamenak aurkez daitezen.

6.- 5.999.774,80 €-ko gastua, lehenengo urtebeterako (%21 BEZa barne)

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV),

**A C U E R D A**

1º APROBAR el "Proyecto de Ejecución Fábrica municipal de Cultura Lekuona (Unidad de Intervención 18/03: Lekuona)", redactado por VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P., en setiembre de 2017.

2º.- INCOAR expediente para la contratación de las "Obras definidas en el Proyecto de Ejecución Fábrica municipal de Cultura Lekuona (Unidad de Intervención 18/03: Lekuona)".

3º.- DETERMINAR como forma de contratación la de procedimiento abierto (varios criterios) y forma de tramitación ordinaria.

4º.- APROBAR el expediente de contratación, incluyendo los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que han de regir la licitación.

5º.- CONVOCAR licitación, anunciándose así en el Diario Oficial de la Unión Europea, en el Boletín Oficial del Estado así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por un plazo de **CUARENTA (40) días naturales**, a contar desde el día siguiente al del envío del anuncio al DOUE, para presentar proposiciones.

6º.- AUTORIZAR el gasto de 5.999.774,80 € (21% IVA incluido) con cargo a los contraídos:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

BAIMENTZEA, A-1979-2016 / A-1969-2016 / A05-31/2018 y A-01-171018-2017 zorpekoen kontura.

A-1979-2016 / A-1969-2016 / A05-31/2018 y A-01-171018-2017.

7.- Kontratuaren esleipena BALDINTZATZEA Udalbatzak onartzeko urria honetako bileran aurkeztuko den aurrekontu-aldaketaren behin betiko onarpenera

7º.- CONDICIONAR la adjudicación del contrato a la aprobación definitiva de la modificación presupuestaria que se someterá a aprobación del Ayuntamiento Pleno en sesión del presente mes de octubre.

**11. Proposamena: EAEko Auzitegi Nagusiari, Errenteriako bake-epaile ordezkoa izendatzeko.**

**11. Propuesta: al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de la persona para ser nombrada Jueza de Paz sustituta de Errenteria.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bidalitako idazkia jaso da, 2017-09-27koa. Bertan Udalari jakinarazten zaio Auzitegi horretako gobernu-salaren batzordeak erabaki duela, 2016-09-08an, Errenteriako Alazne Gozalo Goicoechea ordezko bake epailearen borondatezko uko egitea onartzea eta, era berean, erabaki duela Udalari adieraztea beste pertsona bat proposatu behar duela kargu hori bete dezan.

Se ha recibido un escrito del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con fecha 27-09-2017, por el que se comunica a este Ayuntamiento que la Comisión de la Sala de Gobierno del citado Tribunal ha acordado, con fecha 08-09-2017, aceptar la renuncia voluntaria de la Jueza de Paz sustituta de Errenteria Dña. Alazne Gozalo Goicoechea y ha acordado también indicar a este Ayuntamiento que debe proponer a una nueva persona para ocupar el citado cargo.

Kontuan izanik udalerri honetako Bake Epaile titularra hautatzeko Toki Gobernu Batzordeak 2014ko otsailaren 12an hartutako akordioaren ondorioz eginiko deialdiko oinarrietan hauxe adierazten zela: *“Lehiatzaileen zerrenda, lortutako puntuen arabera, erabiliko da bake epaile titularraren eta ordezkoaren hutsuneak betetzeko.”* Beraz, Epaimahaiak izangaien zerrenda egin zuen haiek lortutako puntuazioaren arabera.

En la convocatoria efectuada por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 12 de febrero de 2014 para la selección de Juez de Paz Titular de este municipio, las bases que rigieron dicha proceso recogieron que *“La lista de las personas concursantes, por orden de puntuación, será utilizada para cubrir las vacantes que puedan producirse tanto de juez de paz titular como sustituto”,* habiendo elaborado el Tribunal Calificador una lista de candidatos, por orden de puntuación.

Oinarri horretan araututakoak, zehazki, deialdian

Lo regulado en esta base, en concreto, la utilización



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

onartutako pertsonen zerrenda erabiltzea, puntuazio ordenaren arabera, bake epaile titularraren eta ordezkoaren postuan sor daitezkeen beharrak betetzeko, helburu du beste deialdi batzuk saihestea karguaren iraupen epean zehar, lau urtekoa delarik.

de la lista con las personas aprobadas en la convocatoria, por orden de puntuación, para cubrir las necesidades que puedan surgir en el puesto de juez de paz titular y suplente, tiene por objeto evitar nuevas convocatorias dentro del plazo de duración del cargo, que es de cuatro años.

Horren haritik, garrantzizkoa da gogora ekartzea Bake epaile titularra izendatzeko 2014ko deialditik, ordezkoa izendatu behar izan da aurrekoaren agintaldia amaitu baitzen, eta horrek uko egin dio izendapen proposamen berri bat sorraraziz. Hau da, zerrenda hori erabili izan ez balitz, bi prozesu berri deitu beharko ziren, baina hori tokiko udal jardueraren efikazia eta eraginkortasun printzipioaren kontra doa. Printzipio hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko uztailaren 7ko 2/2016 legearen 4. artikuluan jasotzen da jasotzen da eta kontsideratu behar da errespetatu egiten dela aplikazio araudiak duen publizitate printzipioa.

En este sentido, es importante recordar que desde la convocatoria del 2014 para el nombramiento de Juez de Paz titular, se ha tenido que nombrar a la sustituta por finalización del mandato de la anterior, la cual, ha renunciado dando origen a esta nueva propuesta de nombramiento. Es decir, que de no utilizar esta lista, se hubieran tenido que convocar dos nuevos procesos, lo que contradice el principio de eficacia y eficiencia en la actividad pública local, recogido en el artículo 4 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y se entiende respetado el principio de publicidad contenido en la normativa de aplicación.

Azaldutakoa kontuan harturik, aipatu zerrendako lehenengo pertsonak betetzen ditu Botere Judizialaren Lege Organikoak ordezko Bake Epaile karguko eginkizunak egiteko ezarritako lege-eskakizunak, hain zuzen eginkizun judizialak egiteko ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez duelako.

Atendiendo a lo expuesto, la primera persona de la mencionada lista disponible reúne los requisitos legales establecidos en la Ley Orgánica del Poder Judicial para desempeñar el cargo de Jueza de Paz sustituta, no estando incursa en ninguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad previstas para el desempeño de las funciones judiciales.

Uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 101.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Botere Judizialeko organikoa, Udalbatzaren eskumena da Bake Epaile kargua hautatzea lege-eskakizunak bete eta eskaera egiten dutenen artean, beti ere akordio hori Udalbatza osatzen duten partaideen gehiengo osoaren aldeko botoekin hartua baldin bada.

Considerando que a tenor de lo dispuesto en el art. 101.2 de la Ley 6/1985, Orgánica del Poder Judicial, de 1 de julio, es competencia del Pleno Municipal acordar la elección del cargo de Juez/a de Paz entre las personas que reuniendo las condiciones legales así lo soliciten, debiéndose adoptar el acuerdo con el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros de la Corporación.

Giza Baliabideko teknikariak 2017ko urriaren 9an

Visto el informe emitido por la TAG de Recursos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egindako txostena ikusi da, udal idazkari orokorraren oniritzia duena.

Humanos con fecha 9 de octubre de 2017, conformado por la Secretaria general municipal.

Antolaketa Batzordeak 2017-10-25ean emandako aldeko irizpidea ikusirik.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Organización de fecha 25-10-2017.

Lehendakaritzako Ordezkariaren proposamenez.

A propuesta de la Delegada de la Presidencia.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 20 botorekin (Orereta/ Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV).

**E R A B A K I A**

**A C U E R D A**

1. **NORA MORAN MAGARIÑO andrea** hautatzea Errenteriako bake-epaile ordezkoa.

2. Udalbatzaren akordioa lurralde honi dagokion Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaileari bidaltzea, hain zuzen honek izendapena egingo duen Euskal Erkidegoko Justizia Goreneko Auzitegiaren Gobernu Salari bidal diezaion.

1. Elegir a **DÑA. NORA MORAN MAGARIÑO**, como Jueza de Paz sustituta de Errenteria.

2. Remitir el acuerdo plenario al Juez de Primera Instancia e Instrucción correspondiente a esta demarcación, para que lo eleve a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que efectuará el nombramiento.

**12. Proposamena: eraginik gabe uztea udalbatzaren 2017ko uztailaren 18ko erabakia, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 075/2016 zenbakiko Ebazpena betetzeko, Errenterian bideak garbitu eta hiri hondakin solidoak bildu eta garraiatzeko zerbitzua esleitzeko deitutako lizitazioa baliogabetzen zuena.**

**12. Propuesta: dejar sin efecto el acuerdo plenario de fecha 18 de julio de 2017, por el que se daba cumplimiento a la Resolución del OARC nº 075/2016, que anulaba la licitación convocada para la adjudicación del Servicio de limpieza viaria y de recogida y transporte de residuos urbanos en Errenteria.**

Udalak osoko bilkuran hartutako erabakia, 2017ko uztailaren 18an, aztertu da. Bertan Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Ebazpenari (075/2016 zenbakia) betetzen zen, “Errenterian bideak garbitu eta hiri hondakinak

Visto el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el 18 de julio del 2017. en el que se daba cumplimiento a la Resolución del OARC (N.º 075/2016) recaída en el recurso especial interpuesto contra la adjudicación del “Servicio de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bildu eta garraiatzeko zerbitzua"ren esleipenaren aurka jarritako errekurtso bereziari zegokiona, eta kontratua esleitzeko udalbatzak hartutako erabakia ezeztatzen zuena, lizitazioa ezeztatzea aginduz.

| **3.3.6. Emakumeek egindako arte-lanak ikustarazteko erakusketak egin**<br>Realizar exposiciones que visibilicen los trabajos artísticos realizados por mujeres | | H |

## 4. LANERAKO ARDATZA: BIZIMODU ERAMANGARRIA

## *EJE DE TRABAJO: SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA*

| | | | |
|---|---|---|---|
| **4.1 HELBURUA: Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea** | **% 80** | **% 20** | **%25 T**<br>**%75 H** |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

| ***OBJETIVO 4.1: Fomentar la autonomía económica de las mujeres*** | | | |
|---|---|---|---|
| **EKINTZAK**<br>**ACCIONES** | **EGIN DA?¿SE HA HECHO?** | | |
| **4.1.1.Gizonezkoen erantzunkidetasuna sustatzeko kanpainak eta sentsibilizazio-ekintzak egin**<br>*Realizar campañas y actividades de sensibilización para fomentar la corresponsabilidad de los hombres* | | | - |
| **4.1.2. Azpi ordezkaturiko lanbideetan emakumeentzat Enplegu Aukerak aurkitzea.**<br>*Localización de Oportunidades de Empleo para las mujeres en profesiones subrepresentadas.* | | | H |
| **4.1.3. Eskualdeko enpresekin Sentsibilizazio Ekintzak egin**<br>*Realizar con las Empresas de la comarca Acciones de Sensibilización* | | | H |
| **4.1.4. Prestakuntzaren bitartez Informazioaren Teknologia Berrien erabilera emakumeei hurbiltzea**<br>*Acercar a las mujeres a través de la formación, el uso de las Nuevas Tecnologías de la Información.* | | | T |
| **4.1.5. Emakumeei lanpostura sartzeko prozesuan laguntzea.**<br>*Acompañar a las mujeres en el proceso de Acceso al Puesto de Trabajo.* | | | - |
| | | | |
| **4.2 HELBURUA: Eguneroko bizimodua eramangarri egiteko beharrezkoak diren lanei duten balioa ematea**<br>***OBJETIVO 4.2: Dar el valor que merecen a los trabajos necesarios para sostener la vida cotidiana*** | **% 60** | **% 40** | **% 100 T** |
| **EKINTZAK**<br>**ACCIONES** | **EGIN DA?¿SE HA HECHO?** | | |
| **4.2.1. Kontratazio-agirietan, zainketa duinak zein zainketa horiek egiten dituztenen lan-baldintza duinak bermatzen dituzten klausulak gehitzea**<br>*Incorporar en los pliegos de contratación clausulas que garanticen cuidados dignos, como condiciones laborales dignas para quienes los realizan* | | | - |
| **4.2.2. Familiekin zaintza, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna lantzeko materiala prestatu**<br>*Preparar material para trabajar el tema de los cuidados, la conciliación y la corresponsabilidad con las familias.* | | | |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

| | | |
|---|---|---|
| **4.2.3. Etxeko enplegatuak diren emakumeei informazioa, aholkua eta babesa eman , bereziki kontuan hartuta emakume migratzaileak**<br>*Dar información, asesoría y apoyo a las trabajadoras empleadas de hogar con especial atención a las mujeres inmigrantes* | | T |
| **4.2.4. Sentsibilizazio-kanpainak egin zaintza-lanaren ondorioz sor daitzkeen gaixotasunei eta ondoezei buruz**<br>*Realizar campañas de sensibilización sobre enfermedades y dolencias que pueden surgir derivadas del trabajo de la persona cuidadora* | | T |
| **4.2.5 Gizon zein emakumeei zaintza-lanak ondo egiteko eta zaintzaileak bere burua zaintzen ikasteko formazioa eskaini**<br>*Formar tanto a hombres como a mujeres sobre el cuidado de personas dependientes y sobre la autoprotección de la persona cuidadora* | | T |
| | | |
| **4.3 HELBURUA: Eredu sozial berria sustatzea**<br>***OBJETIVO 4.3: Fomentar un nuevo modelo social*** | **% 50** \| **% 50** | **% 100 T** |
| **EKINTZAK**<br>**ACCIONES** | **EGIN DA?¿SE HA HECHO?** | |
| **4.3.1. Tartean diru-trukerik egon gabe, elkarri laguntzeko eta gure bizimodua eramangarri egiteko ekimenak aztertu eta martxan jarri**<br>*Examinar y poner en funcionamiento iniciativas para la ayuda mutua y hacer nuestras vidas sostenibles si intercambio de dinero* | | |
| **4.3.2. Bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzeko aukerak aztertu**<br>*Analizar la forma de mejorar la situación de las mujeres que estén en riesgo de exclusión social* | | |

**5.- Etorkizunerako erronkak**

Lanketa honek planaren gauzatze maila helburuz helburu eta ekintzaz ekintza aztertzea ahalbidetu digu.

Dokumentua maiatzeko Berdintasunerako Kontseiluan aztertu eta Planaren indarraldia 2018ra

**5.- Retos para el futuro**

Este ejercicio nos ha permitido analizar el desarrollo del plan por objetivos y acciones.

El documento se analizó en el Consejo de Igualdad de mayo, en el que se propuso prorrogar la vigencia



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

arte luzatzeko proposamena egiten da.

del Plan hasta 2018.

Hurrengo urteetan II. Berdintasunerako Planak ezarritako lan-ildoei jarraipena emateko beharra dago. Lan-ildo horiek bat datoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren “2012-2020 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana”-rekin, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako V. Planak dituen jarraibide eta gidalerroekin.

Es necesario dar continuidad en los próximos años a las líneas de trabajo establecidas por el II. Plan de Igualdad. Dichas líneas de trabajo se corresponden con el “II. Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2012-2010” de la Diputación Foral de Gipuzkoa y con las instrucciones y directrices aprobadas por el V. Plan del Gobierno Vasco.

II. Berdintasun Planean proposatzen diren lan-ildoak egun indarrean daude eta horiei jarraipena ematea beharrezkoa ikusten da. Orain arteko ibilbideak zeharkakotasunarentasunaren estrategia ezartzeko urrats sendoagoak eman beharra erakutsi digu. Horrekin batera, Emakumeen Etxea proiektu estrategikoa denez, honen inplantaziora itxoin nahi dugu III Planak Etxearen estrategia eta ekintza plana behar bezala jaso ditzan.

Las líneas de trabajo que se proponen en el II Plan de Igualdad siguen teniendo vigencia y se ve necesario darles continuidad. El camino hasta ahora recorrido nos ha demostrado que debemos dar pasos más firmes para establecer una estrategia transversal. Asimismo, la Casa de las Mujeres al tratarse de un proyecto estratégico, queremos esperar a su implantación para que en el III Plan se recoja de manera adecuada tanto la estrategia de la Casa como su plan de actuación.

Ondorioz, gauzatze mailari dagokionez, planaren garapena ona izateaz gain oraindik lan egiteko tresna baliagarria dela erakusten digu. Mainstreaming estrategia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko bidean lagungarria izango da, modu zuzenean eta zeharkakoan, eta planean jasotzen diren helburuak betetzea ahalbidetuko digu, adibidez:

Por lo tanto, respecto al nivel de ejecución, el desarrollo del plan ha sido adecuado y nos muestra que sigue siendo una herramienta adecuada para seguir trabajando. La implantación de la estrategia de mainstreaming ayudará a impulsar la igualdad entre mujeres y hombres tanto de manera directa como indirecta y nos ayudará a cumplir los objetivos recogidos en el plan. Por ejemplo:

**GOBERNU ONA**

**BUEN GOBIERNO**

- Batzorede teknikoa indartu “Herritarren” batzordearen lan dinamika baliatuz (1.1.2.)

- Fortalecer la Comisión técnica aprovechando la dinámica de trabajo de “Ciudadanía”(1.1.2.)

- Organo kolegiatuen azterketa egingo da, emakumeen presentzia zein den aztertzeko eta

- Analizar los órganos colegiados para conocer cuál es la presencia de las mujeres y concretar las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

genero-ikuspegia bermatzeko neurriak zehazteko. (1.1.4.), (1.3.8).

medidas necesarias para la incorporación de la perspectiva de género. (1.1.4.), (1.3.8).

- Langileen formakuntza beharrei erantzuna eman (1.1.5.): komunikazio berdinzalerako jarraibideak eta genero-ikuspegia txertatzeko trebakuntza.

- Responder a las necesidades de formación de la plantilla (1.1.5.): pautas para una comunicación igualitaria y capacitación para incorporar la perspectiva de género.

- Udalak egiten dituen kontratazioetan genero-ikuspegia txertatu dadin prozedura zehaztuko da, horretarako, lehenengo, diagnostikoa egingo da. (1.2.1.), (1.2.19.).

- Establecer el procedimiento para incorporar la perspectiva de género en las contrataciones municipales, para lo que se realizará un diagnóstico previo. (1.2.1.), (1.2.19.).

- Ematen den eskaintza kulturalaren azterketa egin emakume eta gizonen parte-hartzea zein den jakiteko, kultura politikaren diagnostikoa egingo da. (1.2.5.)

- Analizar la oferta cultural para conocer cuál es la participación de mujeres y hombres en la misma, para lo que se hará un diagnóstico de la política de cultura. (1.2.5.)

- Pertsonarekin zerikusia duten formulario, eskaera orri eta datu baseetan sexu aldagaia txertatuta dagoen jakiteko horien azterketa egingo da eta txertatuta ez dagoenetan horiek aldatzeko konpromezuak zehaztu. Erabilitzen den ala ez jakiteko eskaera orria eta datu baseen dignostikoa egingo da. (1.3.5.)

- Analizar todos los formularios, hojas de solicitud y bases de datos que tengan que ver con personas para ver si se incorpora la variable sexo y en aquellos que no lo esté concretar el compromiso para modificarlos. Para saber si se incorporá o no se realizará un diagnóstico previo. (1.3.5.)

- Diru-laguntza deialdi guztiak genero ikuspegia txertatu dezaten irizpideak ezarriko dira. Horretarako, diru-laguntza lerro guztien azterketa egingo da eta lerroz lerro dagozkion egokitzapenak egin. (1.3.6.)

- Establecer criterios para que todas las convocatorias de subvención incorporen la perspectiva de género. Para ello se analizarán todas las líneas de subvención y se harán las modificaciones pertinentes. (1.3.6.)

**INDARKERIA MATXISTA EZABATZEA**

**ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA**

- Baliabide eta zerbitzuen gida argitaratuko da (2.1.3.)dauden zerbitzuak ezagutarazteko.

- Se va a publicar una guía de servicios y recursos para darlos a conocer. (2.1.3.)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Erailketa baten aurren Oarsoalde mailako erantzuna adostu zen 2015en. Orain, bestelako indarkeria egoera bat gertatzen denena aurrean Oarsoalde mailako erantzuna adostuko da. (2.1.5.)

- En 2015 se concretó la respuesta a nivel de Oarsoaldea ante un asesinato. Ahora, se va a acordar la respuesta ante otro tipo de casos de violencia. (2.1.5.)

- Langile berriei egiten zaien harrera zehaztea, berdintasun legea ezagutzera eman eta sexu jazarpen eta jazarpen sexisten inguruko informazioa eman, besteak beste. (2.3.5.)

- Establecer el procedimiento de acogida dar a las trabajadoras, informar sobre la ley de igualdad y sobre acoso sexual y sexista en el trabajo, entre otras informaciones. (2.3.5.)

**EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**

**EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES**

- Martxan jartzen diren prozesu parte-hartzaile guztietan eta Udaleko Aholku Kontseiluetan emakumeen parte-hartze parekidea bermatzeko neurriak hartzeko organo kolegiatuen diagnotiskoaren baitan lanketa egingo da. (3.1.6.)

- Garantizar la participación paritaria de las mujeres en todos los procesos participativos que se pongan en marcha y en todos los Consejos Asesores del Ayuntamiento, que se analizará en el análisis de los órganos colegiados. (3.1.6.)

- Gazteen bizi-kalitate eta jabekuntza hobetzeko asmoz sexu-aholkularitza zerbitzua martxan jarriko da 2017-2018 ikasturtean. (3.1.8)

Para que mejore su calidad de vida y el empoderamiento de la gente joven se va a poner en marcha un servicio de asesoramiento sexual en el curso 2017-2018. (3.1.8).

- Ikastetxeekin emakumeen ekarpenen inguruko hausnarketan garrantzi berezia izango du guerra zibila eta oroimen historikoaren ikerketa. (3.3.4.)

- Realizar en los centros escolares una reflexión en torno a las aportaciones de las mujeres, en la que tendrá especial importancia la investigación sobre la guerra civil y la memoria histórica. (3.3.4.)

**BIZIMODU ERAMANGARRIA**

**SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA**

- Kontratazio-agirietan, zainketa duinak zein zainketa horiek egiten dituztenen lan-baldintza duinak bermatzen dituzten klausulak gehitzeko, lehenengo kontratazio klausulen diagnostikoa egingo da. (4.2.1.)

- Incorporar en los pliegos de contratación clausulas que garanticen cuidados dignos, como condiciones laborales dignas para quienes los realizan. Primero se realizará un diagnóstico de las claúsulas de contratación. (4.2.1.)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Zaintza, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna lantzeko sentsibilizazio kanpaina egingo da. (4.2.2.)

- Hacer una campaña de sensibilización sobre los cuidados, la conciliación y la corresponsabilidad con las familias. (4.2.2.)

Epe luzerako estrategia denez, plana 2018ra luzatzea proposatzen da estrategiaren inpaktua planaren garapenean zein izan den ebaluatzeko.

Al tratarse de una estrategia a largo plazo, se propone prorrogar el plan hasta 2018 y así evaluar cuál es el impacto del despliegue de la estrategia en el desarrollo del plan.

**6.- Gobernu onaren eremua: genero zeharkakotasunaren estrategia**

**6.- Ámbito del buen gobierno: estrategia de la transversalidad de género**

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunerako politiken garapenak bilakaera bat izan du. Emakumeen presentzia bizitzako esparru guztietan handitzeko eta ezberdintasunak orekatzeko helburuak dituzten jarduera eta neurri espezifikoen artikulaziotik gizarte osoari eragiten dion eta izate estrukturalagoa duen intebentzioaren planteamendu orokorrago batera pasa da, horrek ezberdintasunen erroetan azpimarratzearen beharra eta emakumeen kokaleku soziala aldatzea bilatzen du eta ez bakarrik beraien egoera.

El desarrollo de políticas de igualdad de mujeres y hombres ha pasado de la articulación de actuaciones y medidas dirigidas especificamente a mujeres, con el objetivo de compensar las desigualdades existentes y aumentar la presencia de mujeres en todos los ámbitos de la vida, a un planteamiento de la de intervención más global que afecta a la sociedad en su conjunto y de carácter más estructural, ya que pretende incidir sobre las raíces de las desigualdades modificando la posición social de las mujeres y no sólo su situación.

Estrategia aldaketa honen sorburua Beiging-eko Emakumeen Batzar mundialean (1995) ematen da eta honela definitzen da: Politikaren izaera osoaren berrantolaketa da eta horrek integrala, estrukturala eta horizontala izan behar du. Sail, maila eta fase guztietan eragin beharko du eta ezinbestekoa izango da politikan inplikatutako eragileen parte-hartzea, baita baliabide espezifikoak bere zerbitzura jartzea ere.

Este cambio de estrategia tiene su origen en la IV Conferencia Mundial de Mujeres en Beiging (1995) mediante la conceptualización y posterior desarrollo de lo que se conoce como maistreaming o transversalidad de género y se define como " la reorganización, desarrollo y mejora de los procesos políticos. Tiene que ser integral, estructural y horizontal afectando a todos los departamentos, niveles y fases de intervención y requiere la participación de todos los agentes implicados en la política y la dotación de recursos específicos."



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Erakunde publikoek genero ikuspegia zeharkakotasunez txertatu behar dute beraien politika eta jarduueretan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak deuseztatzeko helburu nagusiarekin.

Las Administraciones Públicas deben integrar la perspectiva de género de manera transversal en todas su políticas y actuaciones con el objetivo general de eliminar las desigualdades.

Zeharkakotasunaren estrategia lege eta arau nazional eta internazional desberdinetan jasotzen da, baina gure eremuko arautegian, Gizon eta Emakumeen Berdintasun Efektiboari buruzko 3/2007 Lege Organikoko 15. artikuluan eta Euskal Autonomi Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasuneko 4/2005 Legean (Printzipio Orokorrak eta III. Titulua).

La estrategia de la transversalidad se recoge en diferentes normas nacionales e internacionales pero la referencia fundamental en nuestro ordenamiento jurídico se recoge en el artículo 15 Ley 3/2007 para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma Vasca ( Principios Generales y Título II)

Halaber, 4/2005 legeak 7.1.a artikuluan adierazten du tokiko administrazioen eginkizunen artean udalei dagokiela azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea genero ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.

Asimismo, en el artículo 7.1.a de la Ley 4/2005 se recoge corresponde a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi la adecuación y creación de estructuras programas y procedimientos para integrar la perspectiva de género en su administración.

II. Berdintasun Planak erakutsi dizkigu berdintasun irizpideak Udalaren politika eta ekimen guztietan txertatzeko ditugun zailtasunak. Hortaz, beharrezkoa da estrategia bat ezartzea, egitura politiko-teknikoak sortuta lagunduko duena sail guztiak inplika daitezen eta parte har dezaten emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasunean, horrela bermatzeko ikuspegi hori oinarri duen II. plana gauzatuko dela.

El II Plan de Igualdad nos ha demostrado las dificultades para que el principio de igualdad esté incorporado en todas las políticas e iniciativas del Ayuntamiento; por ello, la necesidad de implantar una estrategia que mediante la creación de estructuras político-técnicas facilite la implicación y la participación de todas las áreas en la transversalización del principio de igualdad de mujeres y hombres, garantizando así la ejecución del II Plan que está elaborado con este enfoque.

Horregatik, datozen urteetarako helburua da berariazko proiektu bat martxan jartzea Errenteriako Udalaren politiketan genero-zeharkakotasuna sustatzeko eta ezartzeko oinarriak sendotuko

Es por ello, que se ha fijado como objetivo para los próximos años un proyecto específico que asiente las bases para la promoción e implementación de la transversalidad de género en las políticas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dituena, epe labur, ertain eta luzerako proiektu estrategikoa izango baita herrian nahiz Udalean bertan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

municipales del Ayuntamiento de Errenteria, considerándolo un proyecto estratégico a corto, medio y largo plazo para la consecución de la igualdad real de mujeres y hombres tanto dentro del municipio de Errenteria como dentro del propio Ayuntamiento.

Horren guztiaren arabera, Errenteriako Udalak publiko egiten du emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso irmo eta saihetsezina. Konpromiso etiko, politiko eta tekniko horrek onarpen zabala du, eta asmoa da bere horretan mantentzea nahiz eta gobernua aldatu, eta operatiboa izango bada, arauak behar ditu, plangintza burutzea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa txertatuta eta egiturak sortzea mainstreaming estrategiak behar duen horizontaltasuna eta iraupena eduki ahal izateko.

En virtud de todo lo anterior, el Ayuntamiento de Errenteria hace público su compromiso firme e ineludible con la igualdad de mujeres y hombres. Este compromiso ético, político y técnico, de amplia aceptación, tiene la intención de permanecer estable al margen de los cambios de gobierno y para ser operativo, precisa de producción normativa vinculante, planificación integrando el principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres y creación de estructuras que permitan atender a la horizontalidad y sostenimiento en el tiempo que requiere la estrategia de mainstreaming, como se ha dicho anteriormente.

Proiektu hau ezarri eta jarraipena egiteko prozesuan Udaleko departamentuek inplikazio eta koordinazio handiagoa izan dezaten, zehaztu behar dira proiektua garatzeko esleitutako organoen osaera eta funtzioak; organo horiek gaur egun beste zeregin batzuetan jarduten dira, baina egokiak dira aipatutakoak burutzeko.

Con el objetivo de lograr una mayor implicación y coordinación de los departamentos municipales en el proceso de implementación y seguimiento de este proyecto, se estima necesario especificar la composición y las funciones de los diferentes órganos asignados para el desarrollo del proyecto, órganos que en la actualidad están proyectados para otros cometidos y que se consideran adecuados para el desarrollo del mismo.

**- Udalaren antolaketa berriaren egokitzapena**

**- Adecuación a la nueva estructuración municipal.**

2016ko abenduaren 23ko alkatetzako dekretuz erakunde mailan hiru arlo handi eratzea erabaki zen: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak, Udaleko sail

En el Decreto de Alcaldía con fecha 23 de diciembre de 2016 se decide configurar tres grandes ámbitos a nivel institucional: Organización, Territorio y



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eta azpisailak koordinaziorako eta plangintzarako hiru arlo handitan biltzea, udal-administrazioak dituen oinarrizko hiru elementu integratzaileen ikuspegitik hartuta: Antolaketa, Lurraldea (espazio fisikoa) eta Herritarrak (pertsonak).

Ciudadanía, agrupando tres grandes ámbitos de coordinación y planificación de las diferentes áreas/subáreas municipales, considerando a la administración municipal desde el punto de vista de sus tres elementos integradores básicos: Organización, Territorio (espacio físico) y Ciudadanía (elemento humano).

Hiru arlo horiek Udalaren egungo antolamendu-egitura osatzen duten sail/azpisail guztiei dagozkie, eta horien jarduera osatzen dute.

Estos tres ámbitos se corresponden e integran la actividad de todas las áreas/subáreas que conforman la actual estructura organizativa del Ayuntamiento.

Herritarren eremuan kokatzen da Berdintasunerako Azpisaila, beste hainbat arlorekin batera: Gizarte Zerbitzuak, Kultur Aniztasuna, Udal Hizkuntza Politika, Hezkuntza, Gazteria, Kirolak, Kultura, Liburutegia, Udaltzaingoa eta Babes Zibila.

La subárea de Igualdad se enmarca en el ámbito de la ciudadanía, junto con otras áreas: Servicios Sociales, Diversidad Cultural, Política Lingüística Municipal, Educación, Juventud, Deportes, Cultura, Biblioteca, Policía Municipal y Protección Civil.

Antolaketa berriaren baitan koordinaziorako eta antolaketarako bilera politiko-teknikoak egiten dira astero. Zeharkakotasunarentasunaren estrategia garatzeko eta bere iraunkortasuna eta horizontaltasuna bermatzeko egitura egonkorra eta politiko-teknikoa beharrezkoa da. Hortaz, Errenteriako Udalean azkeneko hilabeteetan eman den antolaketa eta egitura aldaketa kontutan hartuta, Herritarren eremua izango da zeharkakotasunarentasunaren estrategiaren bermea lehenengo fase honetan.

Con la nueva organización, se celebran reuniones político-técnicas cada semana para coordinar y organizar el trabajo. Para poder desarrollar la estrategia transversal y garantizar su sostenimiento en el tiempo y horizontalidad, se necesita una estructura estable y político-técnica. Así, teniendo en cuenta los cambios orgnizativos y estructurales que se han llevado a cabo en los últimos meses en el Ayuntamiento de Errenteria, será el ámbito de Ciudadanía el encargado de garantizar la estrategia transversal en esta primera fase.

Estrategia honek hiru eremuetan (Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak) eragingo du, nahiz eta lehenengo fase honetan Herritarren eremuan hastea

Esta estrategia afectará a los tres ámbitos (Organización, Territorio y Ciudadanía), aunque se prevé comenzar en esta primera fase en el ámbito de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

aurreikusten den. Une bakoitzean alkateak edo zinegotzi-delegatuek erabakiko dute nola eragin beste bi eremuetan.

Ciudadanía. Serán alcaldía y las concejalías quienes decidan en cada momento cómo influir en los otros dos ámbitos.

Dokumentu honen bidez, eta zeharkakotasunarentasunaren estrategia garatzeko helburuarekin, Herritarren eremuko koordinazio egitura politiko-teknikoari ondorengo funtzioak eta funtzionamendua egokitu nahi zaizkio:

Mediante el presente documento, y al objeto de desarrollar la estrategia transversal, pretendemos adjudicar las siguientes funciones y funcionamiento a la estructura político-técnica de coordinación del ámbito de Ciudadanía.

Egitura politiko-teknikoa denez, alde politikoak emakume eta gizonen arteko aukera **berdintasunerako udal politikekiko adostasuna eta konpromiso politikoa zein konpromiso instituzionala** bermatzea ditu helburu; hau da, sail eta zinegotzi guztien inplikazio eta erantzukidetasuna.

Dado que se trata de una estructura político-técnica, el objetivo es que la parte política garantice el **acuerdo con las políticas municipales para la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres y garantice el compromiso político e institucional**; es decir, la implicación y la corresponsabilidad de todas las áreas y de todas y todos los concejales.

Alde teknikoak, aldiz, berdintasun politikaren garapena bultzatu eta sustatu eta Udalean zeharkakotasunaren estrategiaren ezarpena bultzatzea ditu helburu.

La parte técnica, por su parte, tendrá por objeto fomentar y promocionar el desarrollo de la política de igualdad y fomentar la implantación de la estrategia transversal en el Ayuntamiento.

Funtzioei dagokionez, arlo politikoaren funtzioak ondorengoak izango dira:

En lo que a las funciones se refiere, estas serán las funciones de la parte política:

- Berdintasun politiken ildo estrategikoak definitu, agintaldi bakoitzean.

- Definir en cada legislatura las líneas estratégicas de las políticas de igualdad

- Estrategia ezarri eta garatzeko beharrezkoak diren baliabideak onartu eta baldintzak (trebakuntza eta denbora) sortu.

- Aprobar los recursos y las condiciones necesarias (formación y tiempo) para establecer y desarrollar la estrategia

- Sail ezberdinekin urteko lan-programazioa onartu, eta emaitzen urteko jarraipena egin.

- Aprobar el programa de trabajo anual de las diferentes áreas y realizar el seguimiento anual de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

resultados

- Estrategiaren garapenean emandako aurrerapausoak eta zailtasunak aztertu eta baloratu.

- Analizar y valorar los avances realizados y las dificultades superadas en el desarrollo de la estrategia

Arlo teknikoaren funtzioak ondorengoak izango dira:

Las funciones de la parte técnica serán las siguientes:

- Urteko lanerako plangintza orokorra diseinatu, proposatu eta ebaluatu.

- Diseñar, proponer y evaluar la planificación general para el trabajo de todo el año

- Udal esku-hartzeak berdintasun printzipioari egokitzeko ekarpen teknikoak egin.

- Realizar aportaciones técnicas para que la intervención municipal se adecue al principio de igualdad

- Sail bakoitzeko jardueren jarraipena programatu eta gauzatu.

- Programar y realizar el seguimiento de las actividades de cada área

- Udaleko Sail bakoitzaren jardueren eboluzioari buruzko informazioa eskaini, estrategia gauzatzearen inguruko jarraipen egokia egin ahal izateko.

- Ofrecer información relativa a la evolución de las actividades de cada área municipal, para poder llevar a cabo un seguimiento adecuado de la ejecución de la estrategia

Planaren garapena Berdintasunerako Kontseiluan aztertu ondoren eta aholku kontseilu honen iritzia kontutan harturik.

Teniendo en cuenta la propuesta del consejo asesor de igualdad tras el análisis del desarrollo del II Plan.

Berdintasunerako teknikariak, 2017ko irailaren 25ean, Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Planaren (2013-2016) indarraldiaren luzapenerako eta mainstreaming estrategia garatzeko akoridioa onartzearen aldeko txostena egin du.

La técnica para la igualdad, con fecha 25 de septiembre de 2017 ha emitido informe favorable a prorrogar la vigencia del II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria 2013-2016 y de acuerdo para la implantación de la estrategia de mainstreaming. .

2017ko urriaren 23an, Berdintasunerako Delegatuak proposatuta, Herritarrak Batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Visto que en fecha 23 de octubre de 2017, a propuesta de la Delegada de Igualdad, la Comisión Informativa de ciudadanía dictamina favorablemente el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

presente asunto.

Hauek mintzatu dira:

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du gai hori landu dutela bi batzordetan eta bilera batean, eta uste du denek badakitela gutxi gorabehera zer pentsatzen duten. Ikusita planaren betetze-maila, batez ere Udalari dagozkion kontuetan eta helburuak eta ekintzak indarrean daudela, ez dutela egunerokotasunik galdu, eta, hitz egin izan duten moduan, berrikuntza nagusia Emakumeen Etxea izanik, egokia iruditu zaie itxarotea nola garatzen den Emakumeen Etxea, ikusteko zer behar azaltzen diren gero hori plan berri batean txertatzeko behar den bezala. Bere alderdiak kezka bat azaldu zuen berdintasunaren inguruan egitura berriaren baitan Herritarrak batzordean agian gera zitekeelako pixka bat diluituta, baina azken batzordean komentatu zuten moduan, aukera bezala ikusi daiteke, Berdintasuna zeharlerro gisa arlo guztietan lantzeko, Herritarrak batzordean eta batzorde horretatik kanpo ere bai. Ikusiko dute nola doan emakumeen etxea, baina ezin da lo hartu, III. plana egin beharko da, baina ikusita nola doan. EAJk aldeko bozka emango dio.

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du nahiz eta kontziente izan oraindik berdintasunaren bidean lan asko dagoela egiteko, bai Udalean eta bai gizartean, onartu behar dela udal hau lan asko egiten ari dela berdintasunaren bidean, benetako berdintasuna lortzeko. Aukera baliatu nahi dute zoriontzeko Berdintasun sailetik egiten den lana. Eta zehazki planari dagokionez, guztien artean egindako lana da, talde politiko guztien ekarpenak kontuan hartu dira, eta benetako berdintasuna eta transbertsaltasuna lortu nahi badugu, denon artean egin behar dugu, ez da talde politiko baten gauza.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que este tema se ha tratado en dos comisiones y una reunión, y cree que está claro lo que más o menos piensan. Visto el nivel de cumplimiento del plan, sobre todo en los temas relativos al Ayuntamiento, y que los objetivos y las acciones siguen vigentes, que no han perdido actualidad, y que como han solido comentar la principal novedad es la Casa de las Mujeres, les parece apropiado esperar a ver cómo se desarrolla la Casa de las Mujeres, para ver qué necesidades surgen, para luego integrarlo todo en un nuevo plan. Su partido ha mostrado preocupación en relación a que la sección de igualdad podría quedar diluida en la nueva estructura, en la comisión de ciudadanía, pero tal y como comentaron en la última comisión, lo ven como una oportunidad, para poder trabajar la igualdad transversalmente en todas las áreas, tanto en la comisión de ciudadanía como fuera de ella. Ya verán cómo va la Casa de las Mujeres, pero no se pueden dormir en los laureles, habrá que preparar el III. plan, pero después de ver cómo va. El PNV votará a favor.

* Interviene en euskera la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ) manifestando que aunque sean conscientes de que en el campo de la igualdad aún hay mucho trabajo por hacer, tanto en el Ayuntamiento como en la sociedad, hay que reconocer que este Ayuntamiento está haciendo mucho por conseguir la igualdad efectiva. Quiere aprovechar la ocasión para reconocer el trabajo que se realiza desde el área de Igualdad. Y en lo que al plan se refiere, es un trabajo colectivo, se han tenido en cuenta las aportaciones de todos los grupos políticos y si queremos conseguir una igualdad efectiva y transversal, debemos hacerlo entre todos y

Berriz saila zoriondu du, baita talde guztien lana ere.

* Palencia jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du kontsertualizatzeko, II. Berdintasun Plana aho batez onartu zela 2013ko maiatzaren 28an, eta 2016ko iraunaldia zuela. Orain aurkeztu dute plan hori luzatzeko proposamen bat, Mainstreaming estrategia ezartzeko asmoarekin, alegia, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasuna sustatzea administrazio publikoaren maila guztietan. Gustatuko litzaioke gogoratzea II. Berdintasun Planean helburu hau jasota dagoela lehentasunezko puntu gisa, nahiz eta momentu horretan "Gobernu ona" esaten zitzaion. Txosten bat aurkeztu dute II. Berdintasun Planaren betetze-mailari buruzkoa, justifikatzen duena plana luzatzeko proposamena. Txosten hori aztertuta, kezkagarria iruditzen zaie planean bildutako helburu eta ekimen guztien artean % 38 ez burutu izana, eta burutu direnen % 46ren betetze maila baxua edo baxua dela; alegia, planeko ekintzen bi heren ez dira egin edo betetze-maila baxua edo oso baxua dute. Lehentasunezko lan-ardatzera jotzen badute, Gobernu Onarenera, datuak antzekoak dira: gobernu onaren ardatzeko ekintzen % 70 ez dira burutu edo betetze-maila baxua edo baxua dute. Hasiera batean, ez zitzaien egoki iruditzen Plana luzatzea, iruditzen zitzaiela berdintasun-planak aldiz eguneratu egin behar direla arazo edo ikuspegi berriak sortzen direlako. Gainerako taldeekin izan dituzten bileretan eztabaidatu ondoren, eta ikusi onartu zela Emakumeen Etxearen aipamena sartzea eta konpromisoa hartu zutela berdintasun-plan berriari helduko ziotela berandu baino lehen, proposamen honen alde bozkatuko dute, nahiz eta adierazi kezkatuta daudela txostenean adierazitako emaitzekin.

todas, no es cosa de un sólo grupo político. Vuelve a felicitar al área y el trabajo de todos los grupos.

*Interviene el Sr. Palencia (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que por contextualizar, este II. Plan de Igualdad fue aprobado por unanimidad el 28 de mayo de 2013 y tenía vigencia hasta 2016. Hoy se presenta una propuesta de prórroga de este Plan con la idea de "implantar la estrategia de Mainstreaming" que no es otra cosa que la promoción de la transversalidad del principio de igualdad entre mujeres y hombres en todos los niveles de la administración pública. Le gustaría recordar que en el II. Plan de Igualdad, este objetivo viene recogido como primer punto al que se le iba a dar prioridad, aunque en ese momento se le denominaba como "Buen Gobierno". También se ha presentado un informe con el grado de cumplimiento del II. Plan de Igualdad que justifica la propuesta de prórroga. Analizando el informe consideran preocupante que de todos los objetivos e iniciativas que recogen el Plan, el 38% no se hayan realizado y que de las que si se han realizado el 46% se consideran que con un grado de cumplimiento bajo o muy bajo, es decir, que dos tercios de las acciones del Plan o no se han realizado o tienen un grado de cumplimiento bajo o muy bajo. Si van al eje de trabajo que se consideraba prioritario que era el Buen Gobierno los datos son parecidos el 70% de las acciones del eje de Buen Gobierno no se han realizado o tienen un grado de cumplimiento bajo o muy bajo. En un primer momento, no veían la prórroga del Plan ya que consideraban que un Plan de Igualdad es algo que hay que ir actualizando periódicamente ya que van saliendo nuevas problemáticas o nuevos enfoques que se pueden abordar. Tras debatirlo en las reuniones que han tenido con los demás grupos y visto que se aceptó meter la mención a la Casa de las Mujeres y que hubo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

un compromiso de que íban a abordar el Nuevo Plan de Igualdad en un plazo no demasiado largo van a votar a favor de esta propuesta mostrando su preocupación por este informe que se ha presentado.

* Lopez de Echezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du asko hitz egin dutela gai honetaz batzordeetan nahiz bileretan, eta orokorrean saiakera egiten dutela berdintasun-politiketan talde politikoen adostasuna lortzen garatzen dituzten politikak ahalik eta adostasun eta kohesio maila altuenarekin aurrera eramateko, eta ondorioz, berari ere tokatzen zaiola elkarlana eskertzea, proposamena batzordera eraman zuenean lehen aldiz ez zuelako nahikoa landua guztiekin, baina ondoren hartu dutelako behar zen tartea txostena ondo aztertu eta gaiari buruz hitz egiteko. Bere ustez, berdintasun-planak berregin behar dira, iraunaldi bat izan behar dute, baina momentu honetan udaletxearen antolakuntza berriak aukera ematen digu ikusteko benetan has daitezkeen zeharlerrotasun hori askoz ere modu intensoagoan ezartzen. Gauza jakina da administrazioan lan egiten duen ororentzat orokorrean zein zaila den transbersalitatea lantzea arlo guztietan. Hori da ziurrenik administrazioetan duten erronkarik handiena. Hartara, ulergarria da zeharlerrotasuna izatea berdintasun-politiketan duten zailtasun handietako bat, eta berak aukera bezala ikusten du momentu honetan duten antolakuntza-eredu berri hori eta astero maila tekniko-politikoan egiten duten bilera hori baliatzea zeharlerrotasuna modu aktiboagoan inplementatu ahal izateko. Emakumeen Etxea da datorren urtean izango duten apustu politiko nagusia, Berdintasun arloari dagokionez; 2018ak etorkizuneko planaren gauza asko zehaztuko ditu. Hartara, urtebete eskaintzea mainstreamingaren estrategia aplikatzen hasteko eta Emakumeen Etxeak zer ibilbide egiten duen ikusteko, ez da guztiz zentzugabea 2018 amaiera edo 2019 hasierarako planteatzea plan berria.

* Intervine en euskera la Sra. Lopez de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que han hablado mucho sobre este tema tanto en las comisiones como en las reuniones y que en general en las políticas de igualdad han procurado obtener el consenso de los grupos políticos para poder llevar a cabo las políticas con el mayor consenso y cohesión posible. Por consiguiente, a ella le corresponde agradecer la colaboración, ya que la primera vez que llevó la propuesta a la comisión no estaba suficientemente desarrollada, pero posteriormente se han tomado el tiempo necesario para estudiar bien el informe y tratar el tema. En su opinión, se deben rehacer los planes de igualdad, deben tener una vigencia, pero en este momento la nueva organización del Ayuntamiento les ofrece la oportunidad de ver si de verdad podemos empezar a implementar la transversalidad de manera mucho más intensa. Sabido es para quienes trabajan en la administración lo difícil que es trabajar la transversalidad en todas las áreas, ese sea probablemente el mayor reto de las administraciones. Así, es comprensible que la transversalidad sea uno de los mayores escollos de las políticas de igualdad, y ella ve como oportunidad este nuevo modelo de organización, para aprovechar la reunión técnico-política que se celebra cada semana para implementar la transversalidad de manera más activa. La Casa de las Mujeres es la principal apuesta política de cara al año que viene para el área de Igualdad; el 2018 concretará muchas cosas del futuro plan. Así, no es descabellado dar un año para empezar a aplicar la estrategia mainstreamin y para ver el recorrido de la Casa de las Mujeres, para así plantear el nuevo plan hacia finales de 2018 o

Ekarpenengatik eskerrak eman dizkie taldeei, elkarlanean jarduteagatik. Aldeko bozka emango dute.

principios de 2019. Quiere agradecer las aportaciones a los grupos, por la colaboración. Votarán a favor de la propuesta.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 20 botorekin (Orereta/ Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV).

**E R A B A K I A**

1.- Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Planaren indarraldia 2018. urtera arte luzatzea.

2.- Konpromisoa hartzea proiektua ezarri, garatu eta jarraitzeko eta Errenteriako Udalaren politiketan genero-zeharkakotasuna txertatzeko, bai eta egungo egiturak helburu hori lortzeko egokitzekoa ere.

**A C U E R D A**

1.- Prorrogar la vigencia del II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria hasta el año 2018

2.- Adoptar el compromiso para la implantación, desarrollo y seguimiento del Proyecto e implementación de la transversalidad de género en las políticas municipales del Ayuntamiento de Errenteria, así como a la adecuación de las estructuras existentes para la consecución de dicho fin.

**15. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

**15. Ruegos y Preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net